

99

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ

2018ko urtarrila



IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



ELKARRIZKETA

Itziar Garate Lopez,
astrofisikaria:

«*Une honetan egiten
ari naizen ikerketa
egiterik ez dago
Euskal Herrian*»

OSASUNA

Antibiotikoen
erabilera okerra

LIERNI TXINTXURRETA

GIZA BALIABIDEAK

Komunikazio ez
bortitza

NEREA MENDIZABAL

ERREPORTAJEA

Kolokan al dago
pentsio sistema
publikoa?

ERREPORTAJEA

Etxe huts,
zigor huts

Etxe hutsek gogotik
ordaintzen dute
ondasun higiezin
gaineko zerga



NORMALIZAZIOA

Euskaraldia: inertziak apurtu,
hizkuntza ohituratan eragin

IKER MARTINEZ DE LAGOS





Zuzendaritza:

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:

Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea:

Itzaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lankideak:

Xabier Amatria, Kaxildo Alkorta, Jon Arizkun, Begoña Ayerdi, Urtzi Barrenetxea, Miel A. Elustondo, Irene Fernandez, Mikel Gartziarena, Galder Gonzalez, Joseba Larratxe, Luma, Iker Martinez de Lagos, Nerea Mendizabal, Maite Orue, Nerea Pikabea, Amaia Telleria, Lierni Txintxurreta, Izaskun Zuntzunegi

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkarian argitaratutako artikulua berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ISSN: 1576-5563

Legezko Gordailua: BI-1141-93

Egilea: Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea

Donostia-San Sebastián 1,
01010 VITORIA-GASTEIZ.
Tel. 945 01 76 37
www.ivap.euskadi.net

Aurkibidea

2 *Marraskia*

JOSEBA LARRATXE

4 *Pertsonaia*

Andrzej Olejniczak

NEREA PIKABEA

6 *Pasadizoa*

Gezurretan harrapatu

KAXILDO ALKORTA

7 *Elkarrizketa*

Itziar Garate Lopez:

«Une honetan egiten ari
naizen ikerketa egiterik
ez dago Euskal Herrian»

MIEL A. ELUSTONDO

12 *Informazio eta komunikazioaren teknologiak*

Wikipedia ikasleen lanekin
aberasten: aukera praktiko
batzuk

GALDER GONZALEZ LARRAÑAGA

13 *Erreportajea*

Etxe huts, zigor huts

JON ARIZKUN

18 *Leihatila*

Irrist

MIKEL GARTZIARENA

19 *Normalizazioa*

EUSKARALDIA: inertziak
apurtu, hizkuntza ohituratan
eragin

IKER MARTINEZ DE LAGOS

21 *Giza baliabideak*

Komunikazio ez bortitza

NEREA MENDIZABAL

24 *Komunikazio elektronikoa*

Mezu elektronikoko
komunikatiboak idazteko
zenbait aholku I

LIZASKUN ZUNTZUNEGI

26 *Leihatila*

Tximeleta efektua

AMAIA TELLERIA

27 *Osasuna*

Antibiotikoen erabilera okerra

LIERNI TXINTXURRETA

29 *Erreportajea*

Kolokan al dago pentsio
sistema publikoa?

MAITE ORUE

34 *Denbora-pasak*

[ARIKETAK]

ANDRZEJ OLEJNICZAK, SAXOFOI-JOTZAILEA:



NEREA PIKABEA
KAZETARIA

Poloniatik kanpoko beste musikari batzuk ezagutzeko gogoak bultzatuta iritsi zen Bilbora Andrzej Olejniczak, saxofoia besapean hartuta, orain hogeita hamar bat urte. Atzean utzi zuen Zdunska Wola bere sorterrria. Musika estilo desberdineko proiektuetan ibili da geroztik, baina batez ere jazz musika lantzeagatik da ezaguna mundu mailan. Disko ugari argitaratu ditu, eta sariak ere jaso ditu. Gaur egun, hirurogeita hiru urte soinean, hasierako grina berarekin jotzen du saxofoia. Zalaparta mediatikotik kanpo, itzalean dagoen goi mailako musikariari ahotsa eman nahi izan diogu.

Nolako izan zen zure hasiera musikaren munduan? Zure familian ba al zen norbait musika jotzen zuena? Nire aitak akordeoia jotzen zuen aisialdian. Musikatik bizi nahi izan zuen, baina Bigarren Mundu Gerrak musika ikastea eragotzi zion, eta beraz, tornulari hasi zen. Sekulako grina zuen akordeoia jotzeko. Kontzertuak ematen zituen. Aitak dio, hiru urte nituela, sukaldeko koilarak hartu eta aulki gainean kolpeak ematen hasten nintzela, berak akordeoia jotzen zuen bitartean. Lau urte nituela, akordeoia etzanda jarri, pianoa bailitzan, eta teklak jotzen ikasi omen nuen.

Beraz, bazenuen musikarako sena? Hala ematen du. Sei urterekin pianoa ikasten hasi nintzen musika akademia batean. Gero, Lods herrira bidali ninduten ikasten jarrai nezan. Han, barnetegi batean bizitzen egon nintzen. Piano nahikorik ez zegoen eta klarinetea jotzen ikasten hasi nintzen. Gure lehengusu batek bateria jotzen zuen; haren bitartez musika estilo desberdinak ezagutu nituen, besteak beste, popa, rocka eta jazza. Hamabost urterekin, neure kontura, saxofoia jotzen hasi nintzen.

Garai hartan asko lantzen al zen musika Polonian?

70eko hamarkada eta 80ko hamarkadaren hasiera oparoak izan ziren; musikarientzako garai ona. Eliteko musikariak ginen. Nik urtean 250 kontzertu eskaintzen nituen. Bospasei taldetan ibili nintzen, eta

urte osoa etxetik kanpo ematen nuen. Musika klasikoa ere egiten nuen, baina azkenean jazzaren aldeko hautua egin nuen.

Zerk bultzatu zintuen jazzean aritzera?

Garai hartan, jazz oso preziatua zen Polonian; oso zabaldua zegoen, baita ondoko herrialdeetan ere, Alemanian, esate baterako. Irratian asko jartzen zuten jazza. Antzokietan sartzeko jende ilara handiak izaten ziren, eta berehala agortzen ziren sarrerak. Nik jazz izarra izan nahi nuen. Horixe zen nire ametsa. Ezaguna nintzen neure herrialdean.

Orduan, zergatik utzi zenuen Polonia?

Garai hartan, asko jotzen nuen Poloniatik kanpo, baina beti bidaia laburrak izaten ziren. Herrialdera bueltatzean pasaporte itzuli beharra izaten nuen, eta horrek asko mugatzen ninduen. Nik Poloniatik kanpo atera eta beste musikari batzuekin denbora gehiagoz jotzeko gogo handia nuen, esperientzia hori izateko gogo. Nire emaztea —gaur egun emazte ohia— biolin-jotzailea da; eta Bilboko Orkestra Sinfonikoan jotzeko aukera sortu zitzaion, eta hala etorri ginen Bilbora. Berak lan finkoa izanda nik jazzean aritzeko aukera handiagoa izango nuen. Horrela, 1984an iritsi ginen hona.

Duela bizpahiru hamarkada oso ezagun egin ziren pop taldeekin ibilitakoa zara.

«Jakin izan banu nola bizi behar nuen jazza jotzetik, beharbada beste musika estilo bat aukeratuko nukeen»

Itoizekin ibili nintzen hiru urtez; Iñaki Salvadorrekin ere bai. Oskorriekin ere hainbat diskotan parte hartu nuen. Tete Montoliurekin, Miguel Riosekin, Orquesta Mondragonekin, Mecanorekin, Manzanitarekin eta abarrekin ibili naiz urte askoan. Dirua irabazteko jo izan dut talde horiekin, baina ez dut ukatuko asko ikasi dudala musika estilo horiekin ere. Dena dela, jazza bakarririk jotzeko aukera gehiago izan banu, agian, ez nuen talde horiekin joko. Azkenean, bazterrean uzten duzu gehien maite duzun hori, guxtiago konposatzen duzu, eta abar.

Gogorra da, hortaz, jazzetik bizitzea?

Bai. Horretan ez aritzeko esan diet askotan gazteei, ezinezkoa baita jazza egite hutsetik bizitzea. Ni gustura nago hemen egin dudana bizimoduaz; gauzak ongi joan zaizkit. Baina jakin izan banu gaur egun nola bizi behar nuen jazza jotzetik, beharbada, beste musika estilo bat aukeratuko nukeen edota beste herrialde batera joango nintzatekeen!

Jazz eskolak ematen dituzu gaur egun Musikenen. Leioako kontserbatorioan ere bazabiltza. Ez al da ederra zuk dakizun hori besteei erakustea?

Niri ez zait gustatzen eskolak ematea. Musikeneko ikasleei ere esaten diet. Ez zait sekula gustatu, eta ez dut horretan aritu nahi. Batzuetan gozatzen dut eskolak ematen, baina gehienetan denbora galtzen ari naizela iruditzen zait. Hobe denbora hori neuretzat hartuko banu. Hala ere, asko ikasi dut eskolak ematen ere, ez baita batere erraza saxofoia nola jo behar den azaltzea.

Nola helarazten diezu saxofoiarekiko eta jazzarekiko grina?

«Jazz taldea» da nik ematen dudana ikasgaia. Ez ditut ikasleak bakarka hartzen, taldeka baizik, eta hortaz, interesgarriagoa

da. Musika jotzen ematen ditugu orduak. Askotan, klasera sartu orduko hasten gara musika jotzen, goizeko bederatzietan. Eta ikasleak harrিতuta geratzen dira! Nekatuta etortzen dira goizetan eta ez dute musika jotzeko gogorik izaten. Ni, berriz, saxofoia hartu, eta jotzen hasten naiz, gogotsu. Hirurogeita hiru urte ditut. Haiek, berriz, hogeit. Eta orduan harrিতuta geratzen dira; gogo hori nondik ateratzen dudana galdetzen didate. Uste dut musikarekiko energia edo maitasun hori helaraziz asko irakats daitekeela. Saxofoia joaz izan ditudan bizipenak kontatzen dizkiet; uste dut hori guztia oso aberasgarria dela.

Ze aholku ematen diezu gazteei ongi jotzen ikas dezaten?

Askotan galdetzen didate zer egin behar den hobetzeko. Nik beti gauza bera erantzuten diet: jo eta jo. Ordu askoan aritu musika jotzen. Azken batean, lan asko egin behar da. Baina ematen du batzuek ez dutela horretaz ohartu nahi; jazza ongi jotzen ikasteko formula baten eske etortzen dira. Eta hemen ez dago formularik. Musika entzun eta jo egin behar da, urte askotan, ondo egitea lortu arte. Ez dago beste biderik.

Saxofoia jotzen ikasteko fisikoki prestakuntzarik egin behar izaten da?

Nik ez dut prestakuntza berezirik egiten. Birrikak lantzeko ez dut ariketa fisikorik egiten. Argi dago birrikak garbi edukitzea garrantzitsua dela. Arnasketa ere entrenatu egiten da, baina nik ez dut sekula horrelakorik egin.

Azken hamarkadetan zaletasun handia sortu da jazzaren inguruan Euskal Herrian antolatzen diren jazz jaialdiei esker. Jaialdiek eragin handia dute gizartean. Jendeak interesa du, eta kontzertuetara joaten da. Baina bertako musikarientzat

ez dakit eragin hori horrenbestekoa den. Oso zaila da jaialdi horietan jotzea. Estatu espainiarrean, oro har, ez zaie aukera asko ematen bertakoei. Artista izarrak ekartzen dituzte, baina ez bazara ezaguna, zaila da jaialdi horietan sartzea.

Hainbat talde eta proiektuekin zabil-tza gaur egun, horien artean Chopinen musika proiektu batekin.

Talde batekin baino gehiagorekin jotzen dut. Proiektuetako batzuk neureak dira, baina beste batzuen proiektuetan ere parte hartzen dut. Krisia hasi zenetik gutxi jotzen dut Espainian. Egoera zaila da. Duela hamabost edo hogeit urte errazagoa zen lauzpabost egunez jarraian klubetan jotzea. Horregatik, gaur egun gehiago jotzen dut Espainiatik kanpo. Chopinen musikan oinarritutako proiektu batekin nabil orain, bai; Getxoko jaialdian emaldi bat eskaini genuen pasa den ekainean. Poloniako piano jotzaile batekin ere badaukat beste proiektu bat. Eta noski, orkestra sinfonikoekin kontzertuak ematen segitzen dut.

Nola ikusten duzu etorkizuna?

(barre egiten du). Kontzertu gehiago izatea nahiko nuke, baina ezin naiz kexatu. Duela pare bat hilabete Kanadan, Alemanian eta Polonian ibili naiz jotzen, baina jarraikortasun handiagoa izan nahiko nuke. Ordu mordo bat ematen dut etxean inprobisazioak prestatzen, baina gero kontzertuak bakanak izaten dira. Bi aste pasa daitezke kontzertu batetik bestera, eta hori denbora asko da. Agertokira ateratzen naizenean ideiez beteta izan ohi dut burua, eta kosta egiten zait ideia horiei guztiei kontzertu bakar batean tokia egitea.

Jazzaren alde ahalegin handiagoa eskatzeko deia, beraz.

Borroka asko egin beharra dago bizi-rauteko. Ez dakit zer gertatuko den hamar urte barru, oro har, kulturarekin. Internetek eta teknologia berriek eragin handia izan dute. Zuzeneko kontzertuak asko jaitsi dira, eta gaur egun musikari on gehiago dago. Diskoak grabatzeko ere gastuak handiak dira. Gazteen etorkizunak kezkatzen nau neureak baino gehiago, guk baino zailago izango dute eta. ■

Gezurretan harrapatu

KAXILDO ALKORTA

LAGUNA

Mutil koxkorretan, eskolan genbiltzala, ni baino lau urte zaharrago ziren hiru eskolakidek egin zidatena kontatuko dut.

Eskolan sei urtetik hamalau urte bitarteko mutilak ginen. Nik zazpi-edo edukiko nituen orduan, eta aipatu ditudan hirurek hamar-hamaika.

Behin batean hiru lagun horiek hasi zitzaizkidan:

–Hi, egia al da lehengoan kanpoko mutil batzuk etorri zirela, pilota partidua jokatuhu nahi zutela eta hemengo inor ez zela atrebitzen...

–...eta hik, baietz, jokatuko huela esan huela?

Esan zidatena gustatu eta, baietz txiki bat erantzun nien...

–...eta galtzen hasi, baina azkenean irabazi egin hiola...

Eta orduan hirurek batera:

–Ge-zu-rre-tan ha-rra-pa-tu!

Dzast! Halako lotsarik! Eta ezin ba alde egin! Hala ere, hura ez nuen izan nahikoa gezurretan ez dela ibili behar ikas-teko. Horrelako asko behar ikasteko... ikasten bada.

Gure koadrilako baten bat beste baten baten kontuak astintzen hasiz gero, koadrilako beste batek, ia beti berak, hau esan ohi dio: *Hik heureak kontatu; laga bakean besteenak*. Nik neurea kontatu dut.

Niri losintxatan ari zitzaizkidan bitartean pozik egon nintzen, oso gustura. Baietz esatea izan zen nire okerra. Baina oker hartatik ipuinetan jarduteko bide berri bat sortu zitzaidan. Biloba txikiakin dudak jolasetako bat *gezurretan harrapatuka* da. Benetan polita..., nire ustez behintzat.

–Jokatuko al dugu *gezurretan harrapatuka*? Egia al da esan didaten hau, Ibaixu?: «Esan didate lehengo batean, Lekeitioko moilan mutil txiki bati baloia erori zitzaiola putzura eta negarrez hasi omen zen. Eta han zeuden guztiek esaten omen zuten: “Baten batek ekarriko al dio baloia umeari?”. Esan bai, baina inork ez zuen uretara salto egiten. Eta orduan zu agertu zinela han eta arropak kendu eta dzanba jo zenuela, igerian joan zinela, baloia hartu eta umeari ekarri zeniola. Egia al da hori?».

Bilobak bazekien hala ez zela, baina, ipuina gustatu eta, baietz lotsati samar.

–...eta ume txikiak poz-pozik hartu zuela baloia eta amatxorengana joan zela saltaka.

Beste baietz lotsati bat.

–...eta zu jantzi eta lagunekin geratu zinela moilan...

Eta azkenean: *Ge-zu-rre-tan ha-rra-pa-tu!*

Ondoren Ibairen txanda da ni gezurretan harrapatzeko. Aspertu arte.

Bazen kanta zahar bat hau zioena: «... *inori gaitzik egin gabe, karlisten erlijioa bat ere ez baino hobea*». Inori gaitzik egiten ez diotenak dira ipuinetako eta alegietako gezurrak eta beste txantxa-gezur asko. Broma, txantxa, olgeta, adar-jotze, ziri-sartze, norbere burua handitze edo goraiapatze... gezur onak, positiboak azken batean, bizitzako bidea erakusten dutenak, *nolako jokabidea, halakoak* dira *ondorioak* irakasteko aproposak edo dibertitzeko asmoa dutenak.

Oso bestelakoak dira amarrua, koma, bihurria, gezur beltza, gezur gaiztoa, iruzurra, engainua, zimarkua, trikimailua, katramila, faltsukeria, zurikeria, toleskeria, harropuzkeria, gaizki-esaka, kalumnia, jukutria, asmakeria, tranpa (trump-a?) eta horiek.

§§§§§§

Behin batean bost gizon handik banketxe bateko diru guztia ostu zuten. Dirua poltsa handitan sartu, eta ihes egin zuten. Aurpegiak estali gabe zituztela izan zen lapurreta. Banketxe buruak ezagutu egin zituen, baita zaintzaileek ere.

Banketxe buruak lasai zirudien. Lapurrek begi-keinua egin zioten alde egitean. Halakoa ikusita, zaintzaileak zer egin ez zekitela geratu ziren une batean, baina, badaezpada ere, lapurrei segika atera ziren. Bost gizonak hiru-sei urte arteko umeen haurtzaindegi batean sartu ziren. Ikasgela hartan, aurreko horman arbela zegoen, arbelari begira umeen jarlekuak, eta jarlekuen atzean sarrera. Eserleketan eseri ziren lapurrak haurren artean handi-handi arbelera begira. Andereñoak ez zien ezer galdetu gizonen.

Zaintzaileak heldu ziren, eta, bazekiten arren, galdetu zuten:

–Ikusi al dituzue bost gizon handi hemen sartzen? Poltsa handi bana zeramaten.

–Hemen guztiak haurrak dira. Bost handixeago horiek? Horiek ere bai. Zuek ikusten bazaitzute, beldurtu egingo dira. Orain eskulanetan hasiko gara.

Hori esan zien andereñoak zaintzaileei; hori esan zioten zaintzaileek banketxe buruari eta banketxe buruak horixe bera epaileari. Eta epaileak? Hor dago, ba!

Guztiak gezurretan? Hori diote askok. Hala al da? Galdetu andereñoari, galdetu zaintzaileei, galdetu banketxe buruari, galdetu epaileari. Ezetz argitu! Izan ere, hori ez da *gezurretan harrapatuko* edo ipuinetako gezur zintzo, ondradu eta umoreduna. ■

ITZIAR GARATE LOPEZ,

ASTROFISIKARIA

«*Une honetan egiten ari naizen ikerketa egiterik ez dago Euskal Herrian*»

MIEL A. ELUSTONDO
KAZETARIA

Argazkia: Carlos Renero Lekuona



Itziar Garate Lopez (Zarautz, 1986) astrofisikaria Parisen da, Frantziako hiriburuko Meteorologia Dinamikoaren laborategian, doktorego-ondoko ikerketan. Euskal Herriko Unibertsitatean Fisika ikasketak egiten hasia, Tenerifeko La Laguna unibertsitatean lizentziatu zen Astrofisikan. Atzera Euskal Herrira itzuli, eta Bilboko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoan egin zuen doktorego-tesia. Esan bezala, Parisen da orain.

Astrofisika zer den begiratu behar izan dizut entziklopedian...

Ez nau harritzen kontsultatu behar izateak, gaur egun antzeko termino asko baitaude (astronomia, astrofisika, astrobiologia, astrokimika...) eta askotan haien arteko diferentzia ez baita hain garbia. Izan ere, Euskal Herriko Unibertsitatean nire lankide izandako Naiara Barradorekin batera *Zientzia Kaiera* blogean idatzitako lehen artikulua gai honen ingurukoa izan zen: «Zer da astronomia? Eta zer astrofisika?». Egun, astronomia eta astrofisika ia sinonimotzat hartzen badira ere, bada aldea haien artean. Astronomia hitza grezierako *astro* (izar) eta *nomos* (lege) hitzez osatua dago, eta unibertsoaren ikerketa esan nahi du; zehazki, fenomeno eta zeruko objektuen eboluzio, posizio, dimentsio, distribuzio, mugimendu eta energiaren azterketa.

Zeruko objektuak xede astronomiak. Eta astrofisikak?

Astrofisika, berriz *-izar* eta *fisika* hitzez osatua, bistan denez-, astronomiaren adarra da, eta unibertsoaren fisika ikertzen du, hau da, astroen argitasuna, dentsitatea, tenperatura eta beste. Era berean, astrobiologia unibertsoan bizitzarekin lotuta dagoen oro ikertzen duen astronomiaren zatia litzateke. Nahastu behar ez den termino bakarra astrologia da. Grezierako *izar* eta *ikasketa* hitzetatik badator ere, astrologian uste da gorputz zerutiarren kokapenak pertsona baten izaera, bizipen edota etorkizuna zehaztu dezakeela. Jarduera honek ez du oinarri zientifikorik, eta ez da zientziazat hartu behar.

Noren eskueran dago zuk egiten duzun ikerketa?

Gero eta dibulgazio gehiago egiten da. Eta gero eta hobea. Gai batzuk besteak baino errazagoak dira azaltzen, edota ulertzen. Baina, gaur egun, zientziaren arlo gehienetan aurki daitezke publiko zabalari zuzendutako hitzaldiak, blogak,

«Artizarreko zurrunbiloak Eguzki-sistemako aldakorrenak dira, baina oraindik ez dakigu zergatik»

irriti saioak... Oraintsu ospatu da, esaterako, Zientzia Astea Euskal Herriko hainbat unibertsitatetan. Astronomia izango da ziurrenik jendeari hurbiltzen errazena. Betidanik izan dugu zeruko argi distiratsuekiko jakinmina. Betidanik galdetu izan diogu gure buruari nondik gatozen, edo unibertsoan bakarrik gauden. Gainera, zientzia planetarioa, nire ikerketaren adarra, oso bisuala da. Eguzki-sistemako planeta guztien irudiak ditugu, bai urrutikoak, bai gertukoak. Horietako asko ikusgarriak dira. Saturnoren ipar poloko hexagonoa, adibidez. Jendeak nahiago du irudi edo ilustrazio polit bat ikusi, ekuazioak baino. Eta gure arloan hori posible da.

Irakurri dudanez, XVII. mendean ditu erroak astrofisikak eta, gaur egun, zenbait elkarte eta adituk egindako dibulgazio lanari esker da ezaguna. Hor dira, besteak beste, Stephen Hawking edo Carl Saganen lanak...

Astronomiarako zaletasuna txikitatik ekartzea izaten da ohikoena, eta, ondo-

rioz, Stephen Hawking, Carl Sagan eta beste zenbait izen gaztetatik ezagutzea. Baina nire kasuan ez zen horrela izan. Beti izan ditut gustuko matematika, fisika eta kimika, eta argi nuen zientziaren bidetik joko nuela goi mailako ikasketak egiterakoan. Azkenean, Fisika hautatu nuen. Leioan egin nituen lehen urteak, eta, bertan, astrofisika ikasteko grina zuen lagun bat ezagutu nuen. Hari esker hasi nintzen astrofisikaz zerbait jakiten. Lizentziatura garaian, orientazio edo espezialitatea aukeratu behar izan genuenean, argi nuen ez nuela Leioan geratu nahi, bertako Fisika teorikoegia zitzaidan eta. Orduantxe hasi nintzen pentsatzen astrofisika egin nezakeela.

Horrela egin zenuen bidea...

Hasteko, Zarautz jaioterriko Arkamurka Natura Elkartek urtero antolatzen duen Astronomia Aстера joan nintzen. Bertan, Agustin Sanchez Lavega astrofisikariari buruz jakin nuen. Oso ona omen zen, mundu osoan ezaguna. Eta Bilbon bertan nuen. Harekin hitz egitera joan nintzen, eta berak konbentzitu ninduen; batez ere, bere jatortasunak eta profesionaltasunak. Bera bezalakoa izan nahi nuen. Horrela, Tenerifen bi urtez astrofisikako orientazioa burutu ondoren, master eta doktorego ikasketak egiteko Bilbora itzuli, eta Agustinek [Sanchez Lavega] zuzentzen duen Zientzia Planetarioen Taldeko kide bihurtu nintzen.

Fisika ikasitako gehienak irakasle ari dira. Zu, aldiz, astrofisika ikertzailea. Pribilegioa duzu, ala halabeharra?

Egia da une honetan ikerketan ari naizela %100ean, doktorego-ondoko bi urterako ikerketa kontratua dudalako. Hori pribilegioa dela esango nuke, bai, baina epe luzean ikerketan bakarrik aritzea oso zaila ikusten dut. EHUra itzuli nahi dut doktorego-ondokoa amaitu ostean edota pare bat urte geroago, baina Euskal Herrian lan egin nahiko nuke, etxetik gertu. Horretarako, ordea, unibertsitateko irakasle postu bat lortu beharko nuke. Lortuz gero,

irakaskuntza eta ikerketa, biak batera egin beharko nituzke. Eta horrek ikerketa maila jaistea edo irakasle lanetan ari ez diren kideekiko lan egitea –lana bikoiztea, alegia– esan nahi du askotan.

Artizarraren poloan dagoen zurrunbilo bat aztertu zenuen tesian. Zer duzu hori, oinezkook ulertzeko moduan esanda?

Europaren tamaina duen urakan itxurako fenomeno atmosferikoa da. Halere, ez da urakan bat, elkarren inguruan biraka dabilzan hodeien multzoa baizik. Urakan baten energia iturria itsasoko uretan dago, eta Artizarrean ez dago itsasorik. Hortaz, oraindik ez dakigu zein den zurrunbilo hauen –polo bakoitzean zurrunbilo bana baitugu– energia iturria. Bestalde, Artizarreko zurrunbiloak atmosferan oso altu aurkitzen dira, 40 km-tik gora, eta gutxienez 20 km-ko hedadura bertikala dute. Hain handiak izan arren, 24 orduro aldatzen dute formaz. Eguzki-sistemako zurrunbilo polarren artean aldakorrenak dira, eta oraindik ez dakigu zergatik. Ez gara forma aldaketa hori aurreikusteko gai.

Zein interes zientifiko du Artizarraren poloko zurrunbiloaren ikerketak?

Gure sistemako planeta gehienetan daude zurrunbilo polarrak: Marte, Saturno, Saturnoren ilargi nagusi Titanen..., baita Lurrean ere. Lurreko zurrunbiloa, esaterako, ozono geruzako zuloarekin estuki lotuta dago, eta, beraz, interes handikoa da. Beste planetetako zurrunbilo guztien arteko berdintasun eta ezberdintasunak ezagutzeak gure zurrunbiloari buruzko informazioa ematen digu. Bestalde, planeta bakoitzaren baldintza atmosferikoak (presioa, tenperatura, dentsitatea, haizearen abiadura, partikulen konposizio kimikoa eta distribuzioa, eta beste) ezberdinak dira, eta askotan ezin dira Lurreko laborategietan erreproduzitu. Hortaz, beste planetetan Lurreko fenomeno berdinak edo antzekoak –kasu honetan, zurrunbiloak– nola sortzen diren eta zein bilakaera duten ikertuz oina-

rizko zientzia edo ezagutza areagotzen dugu: Planetologia Konparatua da.

Tesian gero ere, Artizarraren poloetako zurrunbiloak aztertzen ari zara...

Bai, baina ikuspegi oso ezberdin batekin. Tesian Venus Express espazio-ontziak hartutako datu infragorriekin egin nuen lan. Zurrunbiloaren dinamika aztertu nuen, eta haizearen abiadura eta airearen tenperatura neurtu nituen. Orain, doktorego-ondoko honetan, zurrunbiloa aztertzen jarraitzen dut baina zenbakizko simulazioen bidez. Hau da, ordenagailuz zurrunbiloa erreproduzitzen saiatzen naiz.

Zein duzu zure lanaren helburua?

Nire helburu nagusia poloetako zurrunbiloen jatorria eta haien aldaketa bizkorrak eragiten dituen fenomeno argitzea da. Espazio-ontzi edo *lander*-ek

–planetetan lurartzen duten robotek, alegia– zuzenean hartutako datuak eta horietatik eratorritako informazioa bartzuetan ez da nahikoa fenomeno atmosferiko bat zehatz-mehatz ezagutzeko. Kasu horietan, ordenagailuz sortutako atmosfera-ereduak erabiltzen dira. Hau da, jariakinen mekanikak ezartzen dituen legeak eta ekuazioak oinarri hartuz –azken finean, atmosfera jariakin edo fluido bat baita–, eta behatutako datuak kontuan hartuz, interesatzen zaigun atmosfera simulatzen duen ordenagailu-programa bat sortzen da. Ondoren, ezagunak ez diren parametroekin jolastuz behatutako ezaugarriak lortzen saiatzen gara, behaketekin alderatu eta ereduak ontzat emateko. Erdietsiz gero, parametro ezezagunak finkatzea edo nolabait mugatzea lortzen da.

DIBULGAZIOA EUSKARAZ

«Urte pare bat daramat dibulgazioa egiten. EHuko Zientzia Planetarioen Taldeko kide gehienek bezala, hitzaldiak eman izan ditut; helduei, nerabeei zein umei. *Zientzia Kaiera* blogean ere hartzen dut parte noizbehinka, eta iaztik Euskadi Irratiko *Hiri Gorrian* saioan parte hartzen dut hiru astetik behin. Ez da beti nire ikerketari buruzko dibulgazioa, baina bai astronomiari buruzkoa. Beti euskaraz ari naiz era horretako dibulgazioan».

ZIENTZIA HELBURU

«Nire kasuan, beste ikerlari batzuek neurtutako hodeien altuera eta tenperaturaren aldaketa bertikala hartzen ditut, adibidez, ezaguntzat. Informazio hori ordenagailu-programa batean sartzen dut; Artizarraren atmosferari dagokion ereduari, alegia. Ondoren, programa hori partikula kopuru jakin bat kontsideratuz egikaritzen dut denbora luzez, Artizarreko 200 egun simulatu arte. Amaieran, programak ematen dizkidan poloetako haizearen abiadura eta airearen tenperatura nik tesian neurtutakoekin alderatzen ditut. Berdinak ez badira, beste partikula kopuru batekin saiateren naiz, kontsideratutako kopurua okerra zela esan nahi baitu. Horrela egin behar dut ezagunak ez diren parametro guztiak, behatutakoa erreproduzitu arte».

Eguzki-ekaitzen gainean ere mintzo izan zara. Zer dira, zehazki, eguzki-ekaitzak? Edozein izarrek, beroa eta argiaz gain, partikula kargatu korronte bat jaurtitzen du etengabe. Gure Eguzkiak ere elektroiz, protoiz eta alfa partikulak jaurtitzen ditu uneoro. Horri Eguzki-haizea deritzogu, eta oso aldakorra da, 400 eta 800 km/s bitarteko abiadura har dezake. Eguzki-haizearen eztanda bortitzei Eguzki-ekaitzak deritze, eta bi eratakoak izan daitezke: azkarrak eta mugatuak direnean Eguzki-erupzioak dira, eta geldoak eta globalak direnean, berriz, Koroa Masa Igorpenak. Lehenengoak zortzi minututan irits daitezke Lurrera, argiaren abiaduran heda baitaitezke. Bigarrenek bat eta hiru egun bitarte behar izaten dute gugana iristeko.

Horrek interesik baduela irakurri dugu...

Lurra magnetosfera deitzen den ezkutu moduko bat du bere inguruan, eta horrek Eguzkitik datozen partikuletatik babesten gaitu. Baina Eguzki-ekaitzak bortitzak direnean, partikulak gure atmosferan sar daitezke, eskualde polarretan, eta arazoak sortu gure eguneroko bizitzan. Adibidez, atmosferan zehar korronte elektrikoak sor ditzakete, eta, batez ere, ionosferako baldintzak alda ditzakete. Honek ondorio zuzenak ditu altuera baxuan dauden sateliteetan; telekomunikazio sateliteetan, GPSetan, esaterako. Korronte elektrikoek sateliteak kaltetu ditzakete. Eta atmosfera dentsoagoa bihurtzeak sateliteen ibilbideak aldatu beharra ekar dezake. Lurrazalean ere instalazio elektriko handiak hondatu, eta itzalaldi luzeak eragin ditzakete halako ekaitzek.

Hortik Eguzki-ekaitzak ikertzeko interesa.

Bai, gaur egun oso garrantzitsua da gizakiontzat Eguzki-ekaitzak kontrolpean izatea, Lurrean eragin ditzaketen ekaitz geomagnetikoak noiz eta zenbateko indarrez gertatuko diren jakiteko. Hori


delat eta, Espazioko Eguraldia deritzon fisikaren arloa sortu zen duela urte batzuk, eta gero eta indar handiagoa du.


Nola gauzatu da horrelako ikerketa bat? Elkarlanean ere jardun izan duzu.

Astronomia oso nazioartekoa da. Lurreko teleskopioetatik zientzia asko egin daiteke, baina Eguzkia edota beste planetak ikertzeko onena bertara joatea da. Halako misio espazialak astronomia-agentzia handietan gauzatu dira –Aeronautika eta Espazioaren Agentzia Nazionalen (NASA) eta Europako Espazio Agentzian (ESA), batik bat–, eta gehienetan herrialde ezberdin askok hartzen dute parte misio batean. Elkarlana ezinbestekoa da. Halere, instrumentu jakin baten datuak lan-talde bateko kide izan gabe ere lor daitezke. Lan-taldearentzat eskusibitate denbora bat existitzen da –ESAren kasuan sei hilabetekoa da; NASAn, aldiz, urtebetekoa–, baina denbora hau igaro ondoren datuak denon eskura jartzen dira eta edonork azter ditzake, zientzialari izan edo ez.

Hemen hasi zinen ikerketan eta lanean; atzerrian, Parisen zara orain. Euskal Herrian, Euskal Herriko Unibertsitatean nahiz Nafarroako Unibertsitate Publikoan, ez da horrelako ikerketarik burutzerik?

Une honetan egiten ari naizen ikerketa, ez. Esan dut EHU badela Zientzia Planetarioen Taldea, Eguzki-sistemako planeta ezberdinen atmosferak ikertzen dituen taldea. Hala ere, EHUko taldean ia ikerketa guztiak burutzeko Lurreko teleskopioetatik eta espazio-ontzi ezberdinetatik zein Hubble Espazio Teleskopiotik datozen irudiak eta espektroak erabiltzen dira. Zenbakizko simulazioan ere lanen bat eginga da taldea, baina pla-





Argazkia: Carlos Renero Lekuona

neta erraldioen kasurako soilik; Jupiter eta Saturnoren kasuetan, adibidez. Egindako simulazioak, berriz, ez dira inoiz atmosfera osoa simulatzeko gai diren programa edo ereduak egin izan. Artizarra edo Marteren kasurako, hau da, planeta lurarrentzat, ez da zenbakizko simulazio ikerketarik burutu. Nire egungo ikerketa burutzeko, esaterako, GCM Klima Globalaren Modeloa behar dut; atmosfera osoa denbora luzez erreproduzitu ahal duten eredu-tako bat, alegia. Parisen, Meteorologia Dinamikoaren Laborategian badute halako GCM bat; eta horregatik etorri naiz hona.

Garunen ihesaz ere hitz egin izan da. Hainbat zientzialari ari dira ikerketan Euskal Herriatik aparte.

Hala da bai. Zientzia edo ikerketaren egungo egoera ez da xamurra, eta zaila da epe luze lanpostu bat lortzea. Beraz, askotan urtez urteko kontratu bate-tik bestera saltoka ibili beharrean gara, Euskal Herrian, Espainian, edota urrutia-tio. Hala eta guztiz ere, lehen aipatu dudan nazio-arteko elkarlan hori dela eta, besteen lan egiteko modua ezagutzea eta besteekin nola lan egin jakitea ere komeni da. Milaka ikuspuntu daude munduan. Eta zenbat eta jende gehiagorekin aritu, orduan eta lan egiteko modu gehiago ikasten da. Hori oso erabilgarria izango da geroan. Arazo zehatz bat ikuspuntu ezberdinekin ikusteko eta modu egokienean jorrazteko balio du.

EAEn eta Nafarroan nahikoa inbertitzen da unibertsitatean, oro har, eta ikerketan?

Ez ditut zenbaki zehatzak ezagutzen, baina estatuan beste zenbait erkidegotan

baino gehiago inbertitzen dela badakit. Denok pairatu dugu krisia, eta denok nahiko genuke inbertsio handiagoa. Denok botatzen ditugu faltan ikerketa kontratuak edota talde txikientzako diru-laguntzak. Baina nik uste, oro har, Euskal Autonomia Erkidegoan ezin gara dela kexatu.

Ingelesezt argitaratzen dira ikerketa gehien-gehien emaitzak. Zer leku dute gainerako hizkuntzek –euskarak, kasurako– ikerketan?

Ingelesa da zientziaren hizkuntza. Ikerketa mundu mailan egiten da, eta elkarri ulertzeko hizkuntza bera hitz egin behar dugu. Hala ere, badaude bestelako hizkuntzetan argitaratzen diren aldizkariak. Gutxi, baina badaude. Esate baterako, EHU-n bada aldizkari bat, *Ekaia*, zientzia eta teknologiaren aurrerapenak euskaraz argitaratzen dituena. Ingelesezko aldizkari garrantzitsuetan egiten den bezala, artikulua batek bi begiraleren ebaluazioa gainditu behar du bertan argitaratua izan dadin. Egia da irakurle kopurua txikia dela eta bertan argitaratutako ikerketek oihartzun txikiagoa dutela. Baina badugu euskarazko aldizkari bat.

Azkenik, zein dituzu Pariseko bizimodu eta errutina?

Esate baterako, jatorduak ezin buruturik nabil! Laborategian ordu batean bazkaltzeko ohitura dute. Haientzat berandu xamar da, niretzat, aldiz, goiz! Gainerakoan, gosariak, afariak eta asteburuetako bazkariak Euskal Herriko ordutegiaren arabera egiten jarraitzen dut, hau da, berandu xamar. Horrek esan nahi du batzuetan jatorduen arteko tartea laburregia dela, eta, beste batzuetan, berriz, luzeegia. Arratsaldeak amaigabeak iruditzen zaizkit askotan!

Frantsesa ere hor da, hizkuntza...

Kontu hori ere zaila da. Atzerrira etortzen zarenean, beste hizkuntza bat hitz egiten den herrialdera zator; gehienetan, behintzat. Guztiz integratzeko, berriz, hiz-

«Denok botatzen ditugu faltan ikerketa kontratuak edota talde txikientzako diru-laguntzak»

kuntza hori ikasi egin behar duzu. Zure lanarekin zer ikusirik ez badu ere, egin beharreko esfortzu gehigarri bat da. Eta oso nekagarria izan daiteke. Gogorrena, ordea, barneko bakardadea da. Barnekoa diot, eguneroko bizimoduan nabaritzen ez delako. Lagun berri mordoa egiten ari naiz, bai egoitzan, bai laborategian. Eta Paris bezalako kultur hiri batean egunero egin dezakezu zerbait: museoak bisitatu, kontzertu batera joan, hitzaldiak, erakusketak... Baina azkenean ez duzu inor sakon ezagutzen. Eta inork ez zaitu zu guztiz ezagutzen. Gauzak ondo doazenean oso erraza da garagardo bat hartzera joatea eta kontu kontari ibiltzea. Baina egun txarra duzunean etxeokak eta betiko lagunak faltan botatzen dituzu. Horregatik saiatzen naiz hilabetean behin Euskal Herrira joaten, asteburu pasa besterik ez bada ere. ■

Wikipedia ikasleen lanekin aberasten: aukera praktikoko batzuk

GALDER GONZALEZ LARRAÑAGA
EUSKAL WIKILARIEN KULTURA ELKARTEA

Orain dela 16 urte Wikipedia sortu zenetik asko aldatu da informazioa eskuratzeko dugun modua. Testu liburuak alboan geratzen joan dira, entziklopedia klasikoak apaletan daude eta bere garaian arrakasta izan zuten *Encarta* bezalako entziklopedia birtualak ez dira jada aurkitzen. Wikipediak entziklopedia zabala eskaintzen du, etengabe hazten doan kalitatearekin eta hizkuntza askotan. Eta onena, libre, bere zentzu guztietan. Wikipediako edukia edonork hobetzea du, eta edonork irakurri eta erabiltzea.

Ikasleei konpetentzia zehatz batzuk eskuratzeko eskatzen diegu gaur egun: edukiez gain edukien sorkuntza bera nola egiten den jakin behar dute; informazioa nondik eskuratu eta kalitatea zerk duen eta zerk ez ezberdindu behar dute; talde-lanak egiten jakin behar dute; horrez gain, distantzian egiten ere; eta konpetentzia digitalak behin eta berriz aipatzen dira... konpetentzia horiek guztiak lortzeko modu gutxi daude, eta Wikipedia editatzea horietako bat da. Mundu osoan zehar hezkuntza eta Wikipediaren arteko loturak hazten ari dira, eta ez da gutxia-

gorako: ikaslea sortzaile bilakatzen du, informazio iturriak sailkatzen laguntzen dio eta, gainera, jakintza nola sortzen den ulertzen laguntzen dio. Eta hori gutxi balitz, euskaraz ere egin daiteke; eta horrekin batera euskararen ezagutza, erabilera eta edukiak aldi berean areagotu.

Irakasleek, ordea, arazoak izaten dituzte Wikipedia erabiltzearekin. Ezezagutza, hezkuntzarako tresnen egokitasun falta edo ikasleen lanaren gaineko kontrolik ez izatea dira aipatu ohi dizkiguten kezak. Horretarako, baina, sortu dugu Wikipedian «Hezkuntza Ataria» (<https://eu.wikipedia.org/wiki/Atari:Hezkuntza>). Bertan irakasleek hainbat tresna aurkituko dituzte lanak proposatu ahal izateko eta ikasleen lanak neurtzeko.

Horietako bat «Dashboard» da, oraintxe euskaratu duguna. «Arbela» izena jarri diogu euskaraz, lanak kudeatu eta ikasleen ekarpenak neurtzeko leku bat delako. Ikastaro bat sortu ondoren, ikasleek izena ematen dute eta artikuluak banaka edo taldeka esleitzen dira. Ikasleek bertan dituzte tutorialak (Wikipedia nola erabili, erreferentziak nola sartu, irudiak nola aurkitu eta landu...), eta irakasleek tutorial horien garapena ere bertatik ber-

tara jarraitu dezakete, ariketak egiten dituzten ikasleak zeintzuk diren ikusiz.

Behin ikasleek lana eginda, ikasle bakoitzak zer, zenbat eta noiz egin duen esaten digu tresnak. Talde-lana izatekotan, gainera, «WhoColor» izeneko programak ikasle bakoitzak egindako lana zein den esaten digu, amaieran aurkeztutako artikuluaren gainean koloreen bidez adierazita. Tresna guztiz gardena eskaintzeak aukera politak ematen ditu talde-lanak ebaluatzeko; orain arte zaila zen eremu hori.

Ikasleek, gainera, egindako lana automatikoki ikusten dute argitaratuta. Horrek baditu bere abantailak, euskarazko edukien sorreran zuzenean laguntzen dielako, eta aurrerantzean ere irakasleen mediaziorik gabe ikasi eta ekarpenak egiteko aukera dutela ikusten dutelako.

Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak hezkuntza jarri du bere ekimen nagusi gisa hurrengo urteetarako. Horregatik, gurekin batera lan egin nahi duen irakasle orok hezkuntza@wikimedia.eus helbidea erabil dezake kontaktuan jarri, laguntza eskatu eta propio sortutako programa bat garatzeko. Auzolanean egingo dugu. Kalitatez. Euskaraz. ■

Etxe huts, zigor huts

Etxe hutsek gogotik ordaintzen dute ondasun higiezinaren gaineko zerga

JON ARIZKUN
KAZETARIA

Zerutik jakina denez, gure udalen diru-sarreretan zergak dira iturri ohikoenak eta garrantzizkoenak eta, urterik urte, gutxi-asko, Kontsumo Prezio Indizearen arabera igo ohi dira. Zerga horien artean dira, adibidez, ondasun higiezinaren gaineko zerga (OHZ); ekonomia jardueren gaineko zerga; trakzio mekanikoko ibilgailuen gainekoa; hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga; eraikuntza, instalazio eta obren gainekoa; hilerriko zerbitzua; estolderia; erabilera anitzeko etxebizitza, babes etxea, kiroldegia eta igerilekuak, frontoiak eta udal jabari publikoa okupatzeagatik ordaintzen diren tasak, eta beste. Zerga horien guztien artean OHZk osatu ohi du neurri handienean udal baten diru-poltsa, eta hala gobernu taldeek nola oposizioek kasu emanez jarduten dute OHZ igotzeko garaian, udalaren sarrerak ez konprometitzeko, batetik, eta hiritarren sakelak diruz ez husteko, berriz, bestetik.



ETXEBIZITZA HUTSAREN ZULOA

Larrutik ordaintzen da etxebizitza hutsa. Nafarroan, esaterako, duela lau urte 1.700 euroko gastua zekarren etxea itxita edukitzeak. Gastu horretan ageri ziren, besteak beste, OHZ, etxeko aseguria, hornigaiak...

Batez beste, OHZ 240 eurokoa zen Nafarroan etxebizitza estandarren kasuan; etxe aseguria, nahitaezkoa ez izanagatik ere, 180 bat eurokoa. Komunitateko hileroko saria, 60 bat eurokoa, hau da, 720 euro urtean; hornigaiari gagozkiela, nahiz eta etxebizitza batere ez erabili –kontsumo minimoaren kuota betiere–, hilean 20 eurokoa zen argiaren kasuan, eta beste 20 euro gasarengatik ordaindu beharrekoa: denera, 360 euro urtean. Zenbaitek nahiago ohi du argi eta gas zerbitzuetan baja eman, baina berriro alta ematean dator ordaina: 200 euro balio zuen horietako zerbitzu bakoitzean berriro alta emateak.

Azkenik, etxe hutsek konponketa lan gehiago behar izaten dituzte okupatua den etxe batek baino. Maiz askotan, gauzak ez dira puskatzen, baina agerikoa da hondamena. Urtean batez besteko konponketa gastua 200 eurokoa izan zitekeela kalkulatu zuten Nafarroan, ohiko garbiketa-lanak, bonbilak, leihoak, pertsianak eta elektrotresnak barne harturik.

Denera, beraz, 1.700 euroko zuloa etxe hutsak, Nafarroako kalkuluen arabera.

OHZ udal askoren salbamendua da, batez beste sarreren % 30 –zenbait kasutan, baita % 50 ere–, ematen baitio udalari. Esate baterako, 2007an ekonomia krisia hasi zenetik eta etxebizitzaren salneurria % 30 jaitsita ere, OHZren bidezko diru-sarrerek finantzazio-kuota oparoak ekarri zizkieten gure udalei. Espainian, bestalde, Ogasun Ministerioaren datuen arabera, 2014an udalerriek zergen bidez jasotako 100 eurotik 38 OHZtik zetozen, eta horri esker egin ahal izan zioten aurre udalek Madrilgo gobernuak eta zenbait autonomia erkidegok baino hobeto ekonomia krisi gaitzari.

Udalek OHZ tasa ezartzeko askatasun tartea dute, gehieneko eta gutxieneko muga jakinen barnean, eta askatasun horretaz baliatu ohi dira etxebizitzaren, sal-tokien, bulegoen, lokalen edo lurzoruen katastro-erreferentzietan ageri diren tasarekin jokatzeko eta beren diru-sarrerak ziurtatzeko. Hargatik aldatu ohi da nahi beste OHZren balioa udalerritik udalerrira, eta garestiagoa da Bilbon, adibidez, Donostian, Gasteizen eta Iruñean baino.

OHZ kalkulatu nahi izatekotan, aski da etxe nahiz lur jakin batek katastroan duen balioari tasa bat aplikatzea. Foru diputazioek katastroetako balioak eguneratzeak OHZ igotzea ohi dakar. Horrela, 2016ko irailean Bizkaiko Foru Aldundiak, 40 urte eta gero lehenengo aldiz, ondasun higiezinaren katastroko balioak eguneratu zituenean, Igorren, adibidez, OHZren % 555eko igoera ekarri zuen aipatu eguneratzeak. Bistan denez, Igorreko udalak ez zuen OHZ katastroko balioa beste igo, katastroko balioaren igoera konpentsatzeko zerga-tasa txikiagoak onartu baitzuten.

OHZ udalen diru-sarrera handiena izatea, bestalde, gizarteak duen etxe behararekin batera etorri da, eta, ondorioz, beste bi aferarekin eskutik helduta heldu zaigu, hau da, etxebizitza hutsten arazoarekin eta etxebizitza hutsei aplikatu beharreko OHZrekin.

ETXEBIZITZA HUTSAK

Espainiako Tokiko Ogasunen 2004ko legearen arabera, etxe hutsen kasuan udalek %50era bitarteko errenergua erantsi ahal diote OHZ kalkulatzeko baliatzen den kuota likidoari. Aipatu legea urtea joan urtea etorri hutsik dauden etxez ari da. Udalari askok legea baliatu eta gauzatu egin dute igoera: batzuek %10eko igoera aplikatuz, beste batzuek, %50ekoa. Alabaina, badira errenergua hori aplikatzeari uko egin dioten udalariak ere, etxebizitzaren inguruko definizio zehatzik ez eta.

Euskal Autonomia Erkidegoari dagokionez, Eusko Legebiltzarrak Etxebizitza lege berria onartu zuen 2015ean, herriar guztiok etxebizitza izatea helburu. Hutsik dauden etxebizitzak gainean ari dela, berriz, EAEko Etxebizitza Legeak hutsik dauden pisuengatik zigor ekonomikoak jartzeko aukera jasotzen du. Legeak dioenez, zigor hori etxebizitzak bi urte hutsik daramatzanean jarriko da, eta 10 eurokoa izango da metro koadroko. Hala ere, zigorra %10 garestituko da etxebizitzak hutsik jarraitzen duen urte bakoitzeko, hasierako kanona hirukoiztu arte, gehienez. Legeak, era berean, hutsik dauden etxeak alokatzera behartzea ere aurreikusten du. Baina, nabarmen, OHZren igoeraren bidez heldu dira etxe hutsen kontrako zigor-neurriak, hainbat herri eta hiritan ikusi ahal izan denez eta diputazioetako foru arauak bide emanda.

ZARAUTZ, %150EKO IGOERA

2013an, uda garaian ez besteetan, 2.800 etxe huts inguru zeuden Zarautzen. «Etxe hutsez osatutako herria» idatzi zuenik ere izan zen. Garai hartan, Zarautzko Udalak, beste hainbat udalek egin zuten moduan, ohikoak ez diren etxebizitzak OHZri %100eko errenergua aplikatzea erabaki zuen. Etxebizitza horien jabeek ez zuten erabakia gogo onez hartu. Udalaren jarrerari eta hartutako neurriari jazarri zitzaizkien hirurehun bat pertso-

«OHZ udal askoren salbamendua da, batez beste sarreren %30 ematen baitio udalari»

na eta errenergua aurkeztu zuten auzitegian. 2015eko irailaren 14an, berriz, epailearen erresoluzioak arrazoi eman zion Zarautzko Udalari, eta ontzat eman etxe hutsei OHZ errenergua aplikatzea.

Epailearen ebazpenak zioenez, bigarren etxebizitza baten jabeek ahalmen handiagoa dute zerbitzu publikoak diruz laguntzeko. Era berean, zioen etxebizitzak funtzio soziala duela eta OHZren errenergua etxeak alokatzera edo salgai jartzeko laguntzen duela. Gainera, epaileak Foru legeak udalari zerga igotzeko ematen dion eskumena aitortzen zuen, betiere arauko mugen barruan –%50 eta %150 artean– gauzatzen bada. Foru lege honi dagokionez, 2012an Gipuzkoako Foru Diputazioak zerga lokalaren araua aldatzea onartu zuen, zeinaren arabera udalek %150 arte garestitu baitzezaketen OHZ etxebizitza hutsen kasuan. Urte hartan bertan, Zarautzko Udalak zerga %100 igotzea onartu zuen. Ondoko urtean, berriz, %150eko igoera onartu zuen. Orduan, ordea, hainbat herritarrek bat egin, plataforma osatu eta neurriaren kontrako errenergua aurkeztu zuten. Epaileak ezetsi egin zuen, lehenago Hondarribian egin bezala, eta errenergua jartzeko gorago jotzeko aukera ere ukatu.

Garai berean, Gipuzkoako 88 udalerrietako 52k etxe hutsei OHZ igotzea erabaki zuten. Zarautzek, Pasaiak eta Bergarak foru diputazioak baimentzen ahal zuten igoerarik handiena, %150ekoa, ezarri zuten. Gehienek –hogeita bat udalerek–, hala ere, %50ekoa onartu zuten; bide horretatik jo zuten Eibarrek, Arrasatek edo Tolosak. Hamalauk, %100eko igoera adostu zuten; tartean ziren Errenteria, Hernani eta Orio. Beste zenbait herritan neurri apalagoan igo zuten etxe hutsen OHZ, hau da, %10 eta %25 artean. Eta, hain zuzen, %25eko igoera izango dute Bilboko etxe hutsek 2018an.

BILBO, %25

Bilboko Udalak iragan maiatzean jakinarazi zuenez, etxe hutsa dutenek orain baino %25 gehiago ordainduko dute OHZ. Etxeak salgai edota errentan jartzeko da betiere helburu. 2016ko amaierako datuen arabera, 8.722 etxe huts zeuden Bilbon –etxebizitza guztien %5,37, alegia–, eta bestelako definizio juridikorik ez zuten, dena delako etxean inor errolaturik ez edukitzea eta ur-kontsumorik ez izatea, edo kontsumo txikia izatea, hartuko dira etxe hutsaren seinaleztat.

«EAEko Etxebizitza legeak hutsik dauden pisuengatik zigor ekonomikoak jartzeko aukera jasotzen du»

«Zenbait etxe hutsek ez dute errekar gurik izango, baldin eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Hutsen Planean sartuta badaude»

Hiriburuko udalak, bestalde, ez du 2018an etxebizitzaren OHZ igoko –alegia, bere horretan eutsiko dio higiezinaren %87aren zergari–, «bilbotarren sakeletan eragin zuzenena duen zerga delako», Ekonomia eta Ogasun zinegotzi Marta Ajuriaren berbetan. Aldiz, %2ko igoera izango dute saltoki, bulego edo lantegiak.

Etxe hutsez denaz bezainbatean, Ajuria zinegotziaren berbetan beti, «jabeei jakinaraziko zaie OHZ %50 merkeago ordaintzeko aukera dutela delako etxe hutsa Eusko Jaurlaritzaren Bizigune edo gisako beste programaren baten esku uzten baldin badute. Alabaina, jabe horrek etxe hutsa ez uztea erabakitzen baldin badu, errekar gurua aplikatuko zaio». Bizkaiko foru arauak errekar gurua gehienez %50ekoa izatea baimentzen die udalei baina Bilbok %25eko errekar gurua baino ez du onartu, Donostiak onartua duen moduan, hain zuzen.

ELORRIO, %50

2017ko udaberrian erabaki zuenez, Elorrioko Udalak ere errekar gurua ezarriko die OHZn etxe hutsei, alokairua bultzatzeko asmotan. Errekar gurua hori %50ekoa izatea erabaki zuen udalak. Erabakia, hala ere, ez zen deusetik sortua izan, urte bat lehenago onartutako ordenantza fiskalen neurrietako bat gauzatzea baitzen, etxe hutsak alokairuan jartzeko asmoz higiezinaren jabeei bultzada eman nahirik. Elorrioko alkate Idoia Buruagak adierazi zuenez, etxebizitza duin bat izatea eskubidea izan beharko litzateke. «Hala ere, gaur egun desoreka itzela dago alokairu baten bila dagoen jendearen eta eskaintzaren artean; beraz, funtzio sozial hori ez betetzeagatik errekar gurua bat jarriko diogu etxe hutsari. Datuak eskuetan, badakigu Elorrioren etxe huts asko daudela. Etxebizitzak hutsik edukitzea luxu bat da bai jabearentzat eta baita udalerriarientzat ere, lur gehiago eraikitzea behartzen gaituelako». Hargatik erabaki zuen udalak etxe hutsei OHZ %50 garestitzea.

Etxe hutsak definitzeko orduan, Elorrioko Udalak «potentzialki hutsik» zeuden etxebizitzaren zerrenda egin zuen; alegia, inor errolaturik ez dagoen etxebizitzena. Udalak banan-banan jakinarazi zien jabeei errekar gurua, eta jakinarazpena jaso eta 30 egun izan zituzten jabeek alegazioak aurkezteko.

Errekar gurua dela eta ez dela, Elorrioko Udalak hamazazpi arrazoi ezberdin onartu zituen etxe hutsaren OHZ errekar gururik gabe ordaintzeko. Esaterako, etxe hutsa jarduera profesional bati lotua egotea, alokatuta egotea, saldu edo alokatzekotan egotea, ohiko etxebizitza ez izan arren gutxienezko urteko kontsumo jakinak frogatzeko gai izatea –554 kWh elektrizitatean edo 975 kWh gasean–, eta gisakoak.

BARAKALDO, %40

2017ko azaroan hasi zen Barakaldoko Udala etxe hutsei %40ko errekar gurua ezartzen. Erabakiarekin batera, etxe huts setara jakinarazpenak bidaltzeari ekin zion udalak, igoera azaltzeko. 2016ko azaroko osoko bilkuran ondoko urteko Tasa eta Salneurri Publikoen Ordenantza onartu zuen udalak, eta haren ondorio da iragan azaroan etxe hutsei OHZ errekar guruekin kobratzea. Barakaldoko Udalak dakienez, 2017ko urtarrilaren leheneko errolaren arabera 3.125 etxe huts ziren herrian, hau da, OHZ ordaindu behar duten etxeen %6,8 –45.343 etxe baitira Barakaldon–, eta haiek errentan jartzea da helburua, herriko gazteek lehen etxebizitza izateko aukera handiagoak izan ditzaten.

Gainerako herri eta hiriburuetan bezala, zenbait etxe hutsek ez dute errekar gururik izango, baldin eta Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza Hutsen Planean sartuta badaude, edo bestelako herri erakunderen baten esku utziak, alokatzeko helburuz. Barakaldon, halaber, errekar gurua ordaintzetik salbuesti dituzte hirugarren adineko egoitzetan errolatuta daudenen etxeak, lan arrazoiengatik herrikanpora bizi direnenak –behar bezala justifikatuak eta bi urtez, gehienik–, eta 1.100 euroko errenta baino txikiagoa jasotzen duten alargun eta erretiratuen etxe hutsek.

Errekar gurua helburu da, beti, etxe hutsak alokatzea bultzatzea. Arestian esan bezala, Jaurlaritzaren Etxebizitza Hutsen

Planera sartzen diren etxe hutsek ez dute aipatu errekararik ordaindu beharrik izango, plan horren barruan sartuta irauten duten urteetan.

Orain, ikusi egin behar gure herri eta hirietan ezarritako OHZ errekaruak etxebizitza hutsak merkaturatzen laguntzen duen, eta zein neurritan, eta etxebizitza egiatan bihurtzen den eskubide, Eusko Legebiltzarrak 2015ean onartu zuen Etxebizitza Legeak esaten duen moduan: «Etxebizitza izateko eskubidea nahitaezkoa da gizakiarentzat, funtsezko bes-

te eskubide batzuk baldintzatzen baititu; adibidez, enplegua izatekoa, botoa ematekoa, prestazio eta zerbitzu publikoak jasotzekoa, seme-alabak eskolaratzekoa, kulturaz eta ingurumen egokiaz gozatzekoa, bizipenak senideekin eta lagunekin partekatzekoa, eta beste hainbat, itzal handieneko doktrinak eta justizia-auzitegiek behin eta berriz nabarmendu dutenez. Etxebizitza izateko eskubideak eta eskubide hori benetan gauzatzeak bizitza duin bat eramatea errazten eta ahalbidetzen diote gizakiari». ■

«Ikusi egin behar OHZ errekaruak etxebizitza hutsak merkaturatzen laguntzen duen»

EUROPA, EAE

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak (EEB) 2014an jakinarazi zuenez, EAEn familien % 87,5ek zuen etxebizitza jabetzan, alegia, ehunekorik handiena espainiar estatuko gainerako autonomia erkidegoetan.

Alokatzeari dagokionez, aldiz, ehunekoa txikiagoa zen Euskadin espainiar estatuan baino: % 9,3 EAEn, % 14,5 estatuan. Europako batez bestekoari begiratuz gero, berriz, Euskal Autonomia Erkidegoa nahiz espainiar estatua oso urruti zeuden alokatzeak Europan ohi duen % 33ko mailatik.

Etxe hutsei dagokienez, estatuko autonomia erkidego guztien artean EAEk zuen ehunekorik txikiena, % 8koa, eta gero eta herritar gehiagok uste zuten ez dela sozialki onargarria etxebizitza hutsari eustea, oinarrizko eskubidetzat eta bizitza duina lortzeko baldintzat jotzen baitzuten etxebizitza.

Dinamika horri jarraiki, administrazioek hainbat ekintza abiarazi zituzten etxebizitza hutsak merkaturatzen laguntzeko: OHZ handitzea, etxea erabili gabe edukitzeagatik zigortzea, desjabetzea, etxe hutsa merkaturatzeko laguntza publikoak ematea...

Europako Batasuneko herrialde askotan etxebizitza hutsa hiriko, ekonomiako, gizarteko eta ingurumeneko patologiatzat hartzen da. Hortik abiatuz, jabetzarako eskubidea interes orokorraren arabera egokitzen ahal da.

Irrist

MIKEL GARTZIARENA
IDAZLE ESKOLAKO IKASLE OHIA



Gutxi dute oporrek amesgaiztotik. Hala bizi izan ditu betidanik; eta are atseginagoak zaizkio euskarako laugarren perfila atera zuenetik, bospasei urte atzera. Ez du inolako lotsarik onartzeko maite dituela itzultzaile-lana, lankideak eta euskara; edonola ere, estralurtarra ez denez gero, gehiago asebetetzen dute opor-egunek. Eta helburu horrekin doaz Londredera bera eta bikotekidea. Antza, Gabon-oporrek asetu ez, eta oparitan jasotako egonaldia profitatzera. Zubiek beti elkarlotu dituzte bi ertzak, baina lau egunekoek lasai asko ireki dezakete aterik Unibertsoan.

Karrera-sasoian hitzetik hortzera zerabilen ingelesari herdoila kendu, eta bapo gosalduta Londreseko kaleetan barrena. Postal-ukitua ematen dio bart botatako elurrak hiririari; eta alegiazko goxotasuna urtarrileko hotzaldiaren izotzak. Ikusi dituzte *Hyde Park* itzela mutu eta *Kensington* lorategi ederrak ezohiko estalki zuriz; *Tower Bridge* victoriar erraldoia eta *Westminster* jauregi eder zaharberriua. Bazkalordua aditu dute tripa-zorrien kurriketan. Sandwich etsigarriaren tradizioarekin hautsi, eta plater beroa besarkatu dute *British Museum*-era abiatu baino lehen.

«Eskerrak bapo bazkaldu dugun!», bota dio bikotekideari, aho bete hortz eraikin amaiezinaren sarreran sigi-saga lerrokaturiko bisitari-andanari begira. Museoaren neurrigabetasunak gutziz ebatsirik arreta, pauso bat atzera egin du, lepoa mugaraino oker. Ez du atariko oharra ikusi: «Slippery when wet». Eta, lurra,

labainkor baino, izoztuta dago. Gainera, irakurri arren, ezingo zukeen irristaldia ekidin. Bi oinak airean, berandu datoz gorpuzta zuzentzeko ahaleginak. Ez da filmetako erorialdi goxoa izan; ez du inork kolpea arinduko zukeen lastairarik jarri. Izotzaren kontra lazki kolpatu bizkarra, hezur-hots barne-hutsa airean; errebotean, kale-kantoiaren kontra jo burua.

Elur zapaldua aise tindatu da gorri-arrez. Aurpegiaren kolorea inguruko zurtasunarekin mimetizatuz. Munduko bazter guztietako zapiak bere aurpegia freskatzeko, zurbiltasunetik atera nahian. Emari-emari odola, zoruko izotza lurruntzen eta kutsu mistikoa emanegoez. Odol-errekastotik hasi dira hizkiak diruditenak ateratzen, batzen eta hitzak sortzen: baldintza, ahalera, atzerakarga, puntuazioa eta lokailuak, beste askoren artean. Bikotekidearen fularrak tinko estaltzen dio buruko zauria; artean, etorri geldiezinekora, alde egiten jarraitzen baitute hitzek. Ondo dagoen galdetzen dio behin eta berriro, anbulantziakoak gertu direla, istripuxoa besterik ez dela, ez kezkatzeko. Aldiro, bekokia zimurtuz erantzuten dio, tutik ere ulertuko ez balio bezala. Euskararena baino, errusiarraren traza handiagoa hartzen die maitearen hitzei. Ikusmira lausoak, zorabioak eta ulertzeko ezintasunak are urduriago jartzen dute.

Anbulantziakoek berehala sartu dute ibilgailuan, eta, zenbait frogen ostean, odol-poltsa jarri diote. Larregi galdu du. Esnatu da nahasirik, ospitaleko ohatilan luze, gela zuri aseptikoa ikusgai. Ondoa dauka maitea, logale, eskua eusten dio-

la. Lehenengo mugimenduarekin altxa da bat-batean, eztiki hitz eginez eta ilea kontu handiz ferekatuz (eman berriak baititu zauria ixteko puntuak). Atseginenez aditzen du hizkuntzaren doinua; erakargarri zaio. Zenbait hitz solte ulertu dizkio, halere, esan nahi ziona dezifratzen lagungarri suertatu ez zaizkionak. Harridura-keinua bikotearen bisaietan, are gehiago zorrotzuko dena erizainaren etorrerarekin. Ingelesez hasi zaie mintzatzeko, hurrei solasean aritzen zaien molde berean.

Lurrean etzanda ireki ditu begiak, erizainak hankak altxaturik eusten dizkiola, maitearen kezka-aurpegia atzean. Orain bera da ezer gutxi ulertzeko gai dena. Erizaina ari zaio gurasokeriaz mintzatzeko, ondo dagoen galdetuz. Berak, aldiz, ez du erantzun, eri maiteak baizik, inoizko ahoskera eta doinu jatorrenaz. Lurrean etzaniko bikotekideari indizioa jarri behar izan diote suspertu ahal izateko. Medikuek etorri behar izan du larritasuna arintzera. Adarra jotzeko saiakera traketsa iruditu zaio guztia. Sendagileak berretsi dio ez-ohiko gertakari baten aurrean daudela, odol asko galdu zuela eta premiazko transfusioa egin behar izan ziotela. Era berean, desenkusatu da mediku jauna, ez baitauka euskara ahaztu eta horren orde ingelesa gainjarri izanaren esplikaziorik. Alferrik errepikatu dio itzultzaile dela eta galdu berri duen hizkuntza duela beharrezko lanabes. Begirada errukiorraz erantzun dio sendagileak. Bi gauza gehiago jaso dituzte abiatu baino lehen: barkamen-hitzak eta etxera itzultzeko bidaia-txartelak. Gehiago ez. Gutxi omen dute oporrek amesgaiztotik. Kaka zaharra! ■

Ariketak99

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

I. Bete itzazu esaldiak hitz hauekin:

pairatu afera zurrunbiloa behaketa jorratu bermatu deus
jakin-mina alderatu duina kolokan jariakin amarru eztanda

1. Herritarrentzako Arreta Zerbitzu berriak _____ piztu du beste udal batzuetan eta bisita ugari izan ditu zer eskaintzen duten ikusteko.
2. Laster igarriko da Gabonekin batera datorren kontsumo giroa. Hala, erosketen _____n arduraz jokatzeko aholkuak zabaltzen hasi dira kontsumo elkarteak.
3. Odola, sekrezioak edo gorputzeko beste _____ batzuk garbitzeko, langileek kontakturako aurre-neurriak hartuko dituzte.
4. _____ bidezko ikerketak aukera ematen du jendeak nahi ez duen edo eman ezin duen informazioa lortzeko.
5. Merkealdi garaian ordaindu beharreko prezioa argi eta garbi azaldu behar da, prezio zaharra eta berria _____ ahal izateko.
6. Egur galdara batek _____ egin zuen, eta, ondorioz, 40 urteko emakume bat eta haren 6 urteko iloba hil ziren.
7. Bideragarritasun plan berriak plantaren itxiera eta bertako langileen kaleratzea ekiditeko aukera eta bide guztiak aztertu, _____ eta agortuko dituela jasotzen du.
8. Asmoa ez da testigantza horiei beste batzuei baino garrantzi handiagoa ematea, baizik eta beste askoren moduan torturak _____ dituen giza multzo zehatz baten lekukotasuna agerian uztea.
9. Hondarribiko Musika Eskolaren jarraipena _____ egon daiteke. Irakasleak azkeneko bi hilabeteetan ez dute lansaririk jaso, eta aurrera begira ere ez dago finantza baliabiderik.
10. Lan eta bizimodu _____k izateko eskubidea aldarrikatzeko ekimena antolatu dute datorren astebururako Bilbon.
11. Gure Osasuna Zainduz plataformaren helburua da lehen mailako arretako profesionalentzat lan baldintza hobekak lortzea; horrela, pazienteei arreta egokiagoa _____ ahal izango zaie.
12. Mendebaldeko gure gizarteotan ez dugu maite oinazearen berri entzutea; are gutxiago sentitzea; saiatzen gara mina saihesten, eta horren ondorioa da _____ esan gabe sufritzen dugula, ezkutuan.
13. Auzia ez da erabakitzen erraza, eta hainbat irizpide eta _____ erabil daitezke erantzuna alde batera edo bestera makurtzeko.
14. Errenteriako Udalarentzat _____ garrantzitsua izan da beti Oiartzun ibaiaren ezker aldeko kolektorearen zatia berritzeko obra.

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



Ariketak 99

2. **Komunikazio Elektronikoa ataleko «Mezu elektroniko komunikatiboak idazteko zenbait aholku (I)» artikuluan mezu elektronikoak hobetzen laguntzeko aholku batzuk eman ditugu. Horiek aintzat hartuta, bila itzazu artikuluan azaldutako lau akats, eta esan mezu honi erantzungo zenukeen ala ez, eta zergatik.**

Nork: (Zerbitzu Orokorretako zuzendariak)

Nori:

CC:

CCO: (Langile guztiei)

Gaia: Telelana

[DECRETO 92-2012 Telelana.pdf \(255 KB\)](#) [deialdia.pdf \(370 KB\)](#) [ANEXOS_EUS.pdf \(202 KB\)](#)

Kaixo laguna,

Mezu honen bidez gogorarazi nahi dizut argitaratu dela telelana eskatzeko deialdia. Informazio guztia erantsitako dokumentuetan duzu, eta honako hauek dira dokumentuak: deialdia, deialdiaren eranskinak eta telelanari buruzko dekretua.

Eskabideak aurkezteko epea maiatzaren 31tik ekainaren 15era da, eta eskabideak Amaia Zeraini aurkeztu behar zaizkio.

Zalantzarik izanez gero, deitu 945 22 88 65 telefonora.

Besterik gabe, eskerrik asko.

Igor	
------	--

- a. **Aurki itzazu aurreko mezuan lau akats, eta egin proposamen egokiagoak.** (Oharra: Kontuan izan artikuluan aipatutakoen gaineko akatsak aurkitzeko soilik eskatzen dizugula, ez bestelakoak).

1. akatsa:

2. akatsa:

3. akatsa:

4. akatsa:

b. Orain, erantzun iezaiozu honako galdera honi:

Mezuak erantzuteari buruz aritu gara, noiz eta nola erantzun. Halako mezu bat jasoko bazenu, erantzungo zenioke? Zergatik?

3. Aukera ezazu esaldi egokia Euskaltzaindiaren Hiztegi Batua kontuan hartuz (erantzun bat baino gehiago izan daitezke egokiak):

1. a) Aparteko beka batzuk atera dituzte hainbat hizkuntza ikasi ahal izateko: ingelesa, **frantsesera** edo **alemanera**.
b) Aparteko beka batzuk atera dituzte hainbat hizkuntza ikasi ahal izateko: ingelesa, **frantsesa** edo **alemana**.
2. a) Arpoia jaurti eta bihotza **aldenbeste** zeharkatu zion arren, ez zuen balea harrapatzea lortu.
b) Arpoia jaurti eta bihotza **aldean beste** zeharkatu zion arren, ez zuen balea harrapatzea lortu.
c) Arpoia jaurti eta bihotza **aldenaz beste** zeharkatu zion arren, ez zuen balea harrapatzea lortu.
3. a) Zenbakiz eta letraz adierazitako adierazpenak dira adierazpen **algebraikoak**.
b) Zenbakiz eta letraz adierazitako adierazpenak dira adierazpen **algebraikoak**.
4. a) Matematikak gizartearen errealitate naturalak zein abstraktuak deskribatzeko balio du; zenbakien, erlazio estatistiko edo **ausazko** fenomenoen bidez, esaterako.
b) Matematikak gizartearen errealitate naturala zein abstraktuak deskribatzeko balio du; zenbakien, erlazio estatistiko edo fenomeno **aleatorioen** bidez, esaterako.
5. a) Txikitatik zuen ametsa bete zuen; inguruan **alhatzaile** ibiltzea, alegia.
b) Txikitatik zuen ametsa bete zuen; inguruan **alharazle** ibiltzea, alegia.
c) Txikitatik zuen ametsa bete zuen; inguruan **alatzaille** ibiltzea, alegia.
6. a) Ospelak sendatu nahi badituzu, sar itzazu ur berotan ordu erdiz, eta, lehortutakoan, ondo igurtzi **alkanfor** alkoholez.
b) Ospelak sendatu nahi badituzu, sar itzazu ur berotan ordu erdiz, eta, lehortutakoan, ondo igurtzi **kanfor** alkoholez.
7. a) Diotenez, kiwiak inoiz ez du fruitu gehiagorik emango jada ekoitzi den lekuan; beti egingo du **altsuma** berrien gainean.
b) Diotenez, kiwiak inoiz ez du fruitu gehiagorik emango jada ekoitzi den lekuan; beti egingo du **altzuma** berrien gainean.
8. a) Asko aldatu da langabezian dagoenetik; lehen pertsona **alegre**a zen, eta orain betilun ibiltzen da beti.
b) Asko aldatu da langabezian dagoenetik; lehen pertsona **alegera** zen, eta orain betilun ibiltzen da beti.

- I. 1. Herritarrentzako Arreta Zerbitzu berriak **jakin-mina** piztu du beste udal batzuetan eta bisita ugari izan ditu zer eskaintzen duten ikusteko.
2. Laster igarriko da Gabonekin batera datorren kontsumo giroa. Hala, erosketen **zurrumbilao** arduraz jokatzeko aholkuak zabaltzen hasi dira kontsumo elkarteak.
3. Odola, sekrezioak edo gorputzeko beste **jariakin** batzuk garbitzeko, langileek kontakturako aurre-neurriak hartuko dituzte.
4. **Behaketa** bidezko ikerketak aukera ematen du jendeak nahi ez duen edo eman ezin duen informazioa lortzeko.
5. Merkealdi garaian ordaindu beharreko prezioa argi eta garbi azaldu behar da, prezio zaharra eta **berria alderatu** ahal izateko.
6. Egur galdara batek **eztanda** egin zuen, eta, ondorioz, 40 urteko emakume bat eta haren 6 urteko iloba hil ziren.
7. Bideragarritasun plan berriak plantaren itxiera eta bertako langileen kaleratzea ekiditeko aukera eta bide guztiak aztertu, **jorratu** eta agortuko dituela jasotzen du.
8. Asmoa ez da testigantza horiei beste batzuei baino garrantzi handiagoa ematea, baizik eta beste askoren moduan torturak **pairatu** dituen giza multzo zehatz baten lekukotasuna agerian uztea.
9. Hondarribiko Musika Eskolaren jarraipena **kolokan** egon daiteke. Irakasleak azkeneko bi hilabeteetan ez dute lansaririk jaso, eta aurrera begira ere ez dago finantza baliabiderik.
10. Lan eta bizimodu **duinak** izateko eskubidea aldarrikatzeko ekimena antolatu dute datorren astebururako Bilbon.
11. Gure Osasuna Zainduz plataformaren helburua da lehen mailako arretako profesionalentzat lan baldintza hobekuntza lortzea; horrela, pazienteei arreta egokiagoa **bermatu** ahal izango zaie.
12. Mendebaldeko gure gizarteotan ez dugu maite oinazearen berri entzutea; are gutxiago sentitzea; saiatzen gara mina saihesten, eta horren ondorioa da **deus** esan gabe sufritzen dugula, ezkutuan.
13. Auzia ez da erabakitzen erraza, eta hainbat irizpide eta **amarru** erabil daitezke erantzuna alde batera edo bestera makurtzeko.
14. Errenteriako Udalarentzat **afera** garrantzitsua izan da beti Oiarzun ibaiaren ezker aldeko kolektorearen zatia berritzeko obra.

2. **akatsa:** Gaia. Ez da egokia. Egokiagoa litzateke: **Telelanean deialdia argitaratuta**
- akatsa:** Hasierako agurra. Ez da egokia bi arrazoirengatik: batetik, lankideon arteko tratua beharko luke, eta bestetik okerreko puntuazioa erabili du, hasierako agurretan beti bi puntu jarri behar dira. Beraz, hobe honela: **Lankide hori:**
- akatsa:** Bukaerako agurra. Bukaeran **eskerrik asko** jartzeak ez du zentzurik. Hobe horrela: **Besterik gabe, agur.**
- akatsa:** Sinadura behar du mezu horrek, informalegia da izena soilik jartzea. Hauxe esate baterako:

 <p>HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA</p>	<p>Igor Telleria Arrasate Idazkari nagusia 945 017 601 http://www.ivap.euskadi.eus mailto: itelle@ivap.eus © 2011 Eusko Jaurlaritza</p>
--	--

Erantzunik behar ez duen mezu baten adibide garbia dugu. Talde handi bati bidalitako informazio-mezuek ez dute erantzunik behar, besterik gabe, informatzea baitute helburu.

3. 1. b 5. a eta b
2. b 6. b
3. a 7. a
4. a eta b 8. b

IVAP

HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



EUSKARALDIA: inertziak apurtu, hizkuntza ohituratan eragin

IKER MARTINEZ DE LAGOS
EUSKALTZALEEN TOPAGUNEA

Hizkuntza ohiturak aldatzea ez da erraza, baina posible da eta frogatua dago. Horixe azpimarratu du Pello Jauregi irakasleak Lasarte-Oriako «Baietz 40 egun euskaraz» egitasmoaren bueltan egindako ikerketaren ondorioak azaltzerakoan. Eusle metodologia sortu eta aplikatzen aritu den ikerlariak gauza gehiago ere esan ditu berriki argitaratutako elkarrizketan. «Zenbat eta harremana gertuagokoa izan, orduan eta gehiago kostatzen da hizkuntza ohitura aldatzea. (...) Azken urteetan pilatutako esperientziaren arabera, esango nuke errazagoa dela lantokian hizkuntza ohiturak aldatzea familia batean baino».

Euskaraldiaren zergatiak eta zertarakoak azaltzeko aipu egokia iruditu zaigu aurrekoa, hizkuntza ohiturak baitira ekimenaren helburu eta langai.

Euskaraldiaren oinarriak

Ez zuen pentsatuko Lutxo Egiak, 2015 urtean *Transitoak* izenburuko performancea martxan jarri zuenean, horrelako garapena eta hedapena izango zuenik. Hilabetez Bilbon euskaraz bizitzea eta gaztelera «ahaztea» erabaki zuenean, ez zen erraza irudikatzea bi-hiru urteren buruan Euskal Herri osora zabalduko zenik euskaldunak ahaldundu eta hizkuntza ohituretan inertziak apurtzeko ekimen zabala.

Baina Donostiako Egia auzoko euskaltzaleek lekukoa hartu eta auzo mailan

ekimen kolektiboa antolatu zutenean, hedapenean etenik izan ez duen dinamika abiatu zen. Erraz azaltzen den oinarria dute herriz herri martxan jarritako ekimenez: euskaldunak ahaldundu eta ulermen euskarazko harremanak sortzeko oinarritzko abiapuntu modura aintzat hartzea. Ekimenok bide bat erakutsi digute, eta 2018rako Euskal Herrirako proposamen bateratua aurkeztu dugu: *Euskaraldia*.

Euskaraldiaren oinarrian euskararen erabileraren sustapenean urrats kualitatibo sendoak emateko nahia dago. Eta hau ez da kasualitatea. 2012tik aurrera sarri aipatu izan den ideia da euskararen biziberritzea ziklo aldaketa baten aurrean dagoela eta euskalgintza bidegurutze batean aurkitzen dela, bide berriak eta helburu gaurkotuak aurkitu nahian. Aurreko zikloaren ezaugarri nagusietako bat euskararen ezagutza zabaltzea izan da, eta ziklo berriak bestelako ezaugarri eta helburuak gehitu beharko dizkio ezagutza hedatzeko behar horri. Helburuen artean aipatu izan dira komunitatearen bizi-indarra piztea, hiztunak ahalduntzea, erabilera areagotzeko ekimenak sortzea eta oinarri zabal adostua duten hizkuntza politikak lantzea, besteak beste.

Euskaraldia ez da helburu guztiei heltzeko jaio, baina euskalgintzaren ziklo berri baterako aurreikusten ziren zenbait elementu barnebildu ditzakeela uste dugu. Batek, eragile askoren artean aurkeztu dugun ekimena da: lehen proposamena Euskaltzaleen Topaguneak eta Eusko Jaurlari-

tzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egin arren, ekimenaren aurkezpenean Euskal Herri osoko hainbat erakunde eta gizarte eragilek batera egin dute, elkarlanean (tartean daude eremu administratibo ezberdinetako erakunde publiko nagusiak eta euskalgintza osatzen duten gizarte eragileetako asko ere). Bestetik, erabileran eragiteko ekimen zehatz eta praktikoa bat da aurkeztutakoa, komunitatetik sortua, herriz herri hedatzen joan dena, eta aldekotasun sinbolikotik urrats praktikotara salto egiten duena. Azkenik, euskararen gaineko diskurtso berri baterako elementuak bere baitan biltzen ditu *Euskaraldiak*; herritarrei hizkuntza praktika berriak martxan jartzeko proposamen zehatza egiten diegu eta baliabideak eskaini.

Inertziak apurtzeko jaio da *Euskaraldia*. Herrietan sortutako ekimenez hainbat herritarren hizkuntza ohitura eta praktikatan arrakalak sortu dituzte, eta *Euskaraldiaren* bidez Euskal Herri osoko hiztunei egin nahi diegu oso errotuak ditugun ohiturak aldatzeko proposamena. Baina horretaz gain, erakunde eta eragileen arteko harremanetan ere eredu berri bat sortu nahi genuke.

Euskaraldia, erabileran eragiteko

Euskaraldia 2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra egingo da lehenengoz, 11 egunetan, Euskal Herri osoan. Proposamena sinplea da formulazioan: hamaika egunez, euskal hiztun batzuek

(*ahobiziek*) ahal duten egoera guztietan euskara erabiltzeko erabakia hartuko dute, ulertzeko gai diren lagun guztiekin euskarari eutsiz eta ezagutzen ez dituzten guztiekin lehen hitza gutxienez euskaraz eginez (eta ulertzeko gai direnekin, ondorengoak ere); era berean, euskara ulertzeko gaitasuna duten herritar batzuek (*belarriprestak*), hamaika egun horietan, euskal hiztun guztiari gonbidapena egingo diete beraiei euskaraz hitz egin diezaieten. Batzuek zein besteek ikur bana eramago dute egun horietan, elkar identifikatu eta gonbidapena egiteko.

Ulermenari duen balioa aitortu nahi diogu, gure harreman-kideen hizkuntza ulertzeko izan dezaketen gaitasunak hiztun aktiboek zabaltzen dizkigun aukerak bistaratu. Euskaraz erraz eta eroso hitz egiteko zailtasunek ez dute zertan harremana ezinbestez beste hizkuntza batean egitera behartu. Euskaraz aritzeko hautua egiten duen herritarrek (*ahobiziek*), aukera hori eroso eta lasai egiteko modua behar du, eta ulermena ziurtatzen duen edozein herritarrek (*belarriprestak*) testuinguru hori eskaini diezaiotke.

Itxuraz sinplea den ekimen honen bidez hiztunen ohiko harreman sareetan eragin nahi dugu: harremanak zein hizkuntzan ditugun aztertu, aldatzeko aukerarik dagoen hausnartu eta aldaketarako tresnak eskaini. Norberaren esku dagoen zerbait da, aurrez-aurreko harremanetan hitz egin, frogatu eta ekitekoa, baina modu kolektiboan eta batera eginda, testuinguru babestuak sortzeko aukera dago.

Azken bi urteetan herriz herri egin diren esperientziaz gain, hizkuntza ohiturak aldatzeko bestelako inguruneetan ere frogatu direla aipatu beharra dago. Lan munduan, esaterako, esperientzia interesgarri asko daude (Eusle metodologia da horren adibide) eta *Euskaraldiaren* aurrekari diren ekimenek esperientzi horietatik ere irakasten ugari jaso dute.

Harreman sare naturaletan sortutako aldaketek markatuko dute ekimenaren

arrakasta, euskararentzat irabazten ditugun harremanek. *Euskaraldiaren* eragite eremua, beraz, parte hartzaileen harreman sareek mugatuko dute: familiak, lagunarteak, lan-eremuak, herriak, administrazioak, zerbitzuek... Eta horrek erlazio zuzena du *Euskaraldia* antolatzeko moduarekin. Lehen Euskaraldirako hilabeteak falta diren arren, herriz herri antolatzen hasia dago sare zabal bat, hizkuntza aktibistek eta herrietako eragileek osatua, euskaraz hitz egiteko edo euskara ulertzeko gaitasuna duten herritarrengana heldu eta ariketa sozial honetan parte hartzeko proposamena egiteko. Harreman sareek dituzten adar ezberdinak aintzat hartuta, hala ere, herriz herri antolatzen ari diren batzordeez gain, hainbat enpresa eta erakundeetan ere lantaldeak osatzeko aukera eta interesa handia izan daitekeela ikusten dugu. Egunero-egunero ditugun harremanetako asko lan-esparruan edo zerbitzu eta administrazioarekiko harremanetan gertatzen dira. Horregatik, gonbidapena luzatzen ari gara, enpresa eta erakundeetan ere *Euskaraldia* martxan jartzeko batzordeak sortu daitezten.

Ingurune babestuak

Erabilera eta hizkuntza praktikak ez dira hiztunen hautu eta ahaleginean soilik ebazten baina. Orain arte herrietan egin diren esperientzia guztiak norbanakoen motibazio eta ahalduntzean oinarritu badira ere, testuinguruan eragin behar dugula argi ikusi dugu sustatzaileok. Euskarazko hizkuntza praktikak ingurune abegikor eta eroso behar dute. Honetan, garrantzia handia du gizartean eragina duten era guztietako erakunde eta entitateek eman dezaketen babesa.

Hiztunen arteko harremanak entitateen eragin eremuetan gertatzen dira sarri: enpresak, administrazio publikoa, era guztietako elkarteak (kirol, kultur, gastronomiko, sektorial...), zerbitzuak eta beste. Entitate horiek duten jokatzeko

moduak, arauak edo funtzionatzeko modu eta ohiturek (idatzizkoak izan edo ez) zuzenean eragiten dute hizkuntza praktiketan; erraztu, babestu edo oztopatu ditzakete praktika horiek.

Euskaraldiak 2019an entitateek eskaintzen duten testuinguru horri heldu nahi dio. Euskarazko praktiketarako babesneurriak bultzatu, hedatu eta erakustea izango da helburu nagusia bigarren edizio horretan. Praktika eredugarriak sortu, daudenak bildu eta zabaltzea izango da *Euskaraldiaren* eginkizuna.

Administrazioan euskaraz, inertziak apurtuz

Sustatzaile talde zabala osatu da *Euskaraldiaren* bueltan, eta zerrenda zabaltzeko asmoa dugu. Sustatzaile sare horretan daude erakunde publiko ugari (Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Ipar Euskal Herriko Euskararen Erakunde Publikoa, Euskal Autonomi Erkidegoko Foru Aldundiak, UEMA eta EUDEL, besteak beste). Urtetan administrazioa euskalduntzeko egindako ahalegin eta urratsak asko izan dira, duela 30 urte eremu honetan zegoen egoera zeharo aldatu da, baina oraindik bide luzea dago egiteko eta badira apurtu beharreko inertziak ere, bai barne funtzionamenduan eta baita administrazioaren bueltan ematen diren era guztietako harremanetan ere.

Horregatik, gure iritziak, administrazio publikoetan ari diren kargudun eta langileek egin dezaketen ekarpena handia da. Erakundeek, batetik, erabaki eta babes neurriekin, eta komunitate osoak, bestetik, hizkuntza praktiken gaineko hausnarketa eginez, eraldaketarako tresnak barneratuz eta praktika eraldatzaileak martxan jarri.

Euskaraldiarekin bide erakusle eta aitzindariak bisibilizatu eta bultzatu nahi ditugu. Administrazio euskaltzaleen artean zaudete horietako asko, zalantza barik. ■



Komunikazio ez bortitza

NĒREA MENDIZABAL
PSIKOPEDAGOGOA

SARRERA

Nire unibertsitate-ikasketak giza harremanekin zuzenean lotuak egon dira. Orduan ikasi nuen enpatia eta asertibotasuna bezalako trebetasun sozialak lantzea aberasgarria zela. Biak ere niretzat oso erakargarriak ziren arren, ikasketak amaituagatik norbait ulertzen saiatzen nintzeanean, «Ulertzen zaitut, ia, noski, horrela sentitzen zara...» esan niezaiokeen, baina aurrerago joaten ez nekiela konturatzen nintzen. Aldi berean, egiaztatu nuen «ez» esateko edo besteei gustatuko ez litzaiekeen zerbait adierazteko zailtasun handiak nituela. Amatasunarekin exijentziak, inposaketak eta mehatxuak erabiltzearen tentazioa areagotu zen eta ohartu nintzen egoerak kudeatzeko garrantzitsuak ikusten nituen baloreetan oinarritzeko gaitasuna mugatua nuela. Gainera, nire seme-alabekiko harremana hobetzea helburu zuen ekarpen emozionalarekin talka egiten zuen. Aitortu beharra dut mugatua zela ordura arte inork ez zidalako erakutsi modu esanguratsu batean nire emozioak kudeatzean, gatazkak modu egokian konpontzen, niri gertatzen zitzaizkidanaren kargu hartzen edo besteen esperientzietan bide-

lagun izaten... eta hau etsipenez bizidudan zerbait da, familian, eskolan (baita unibertsitatean) eta arlo sozialean jasotzen dugun hezkuntzari dagokionez. Bizitzako arrakasta pertsonalerako oinarriak haurtzarotik jasoko dugun hezkuntza batean amesten dihardut eta, hortik abiatuta, ahal dudaneraino, nire hazia jartzen saiatzen naiz.


Nire bizitza pertsonalerako eta profesionalerako sendotasun gehiago eskainiko dizkidan lanabesen bilaketan, Marshall Rosenberg-en komunikazio ez bortitza (KEB) topatu nuen duela 10 urte. Nire ibilbidean ardatz nuklear bat aurkitzea bezalakoa izan da; bertatik nire bizitzako gainerako bideak egiteko tresnak aurkitzen ditut, galtzen naizenean berriro ere bidea aurkitzen laguntzen nautenak. Bere konprezio mailak erakarri banindu ere sakontasun eta sotiltasunez bete dago, hautemangarria eta estimulatzailea da aldi berean.

Eta galdetzen diot neure buruari: zeri deitzen diogu **bortizkeria**? Denok onartzen dugun indarkeria dago irainetan, erasoetan, jotzeetan... Baina paradigma horren barruan, bestea mintzeko, urrutiratzeko edo defentsan jartzeko egiten

edo esaten dugun guztiari bortizkeria deritzogu. Hau da, bortizkeria lirateke epaiak, etiketak (ongia eta gaizkia, errua eta, beraz, merezitako zigorrak edo sariak), exijentziak («Egin beharko luke, ez badu egiten...»), arrazoia eduki nahi izatea, kuestionatzea, gutxiestea, konparatzea... Horrelako elementu sotilak aurkitzeak edo ezagutzeak argitasuna ematen digu, batzuetan komentario txiki batek norbait itxi edo defentsan jartzea ekartzen baitu. Sarritan ez dugu ulertzen zergatik jarri den horrela, eta ondorioz, gehiago haserretzera eramaten gaitu.

Beraz, zeri deituko diogu **ez bortitza**? Hurbiltasuna sortzen duen guztia sartuko dugu paradigma horretan, erakarpemagnetikoa duen eremu bat izaten laguntzen duen guztia. Ez da indarkeria ez jartzea, baizik eta hurbiltasuna, erakarpemagnetikoa sortzea.

KEBren helburua da kalitate handiko konexioa sortzea, horren bitartez, batak bestearen egoera ezagututa bi alderdientzako irtenbide onuragarriak izango diren emaitzak lortu ahal izateko. Guztion beharrak ikusi eta zaintzea bilatzen da eta, beraz, denok izango dugu irabazi edo aberastu izanaren sentsazioa.



GURE ASMOA

KEBren funtsa, trukutzen ditugun hitzetan baino, jartzen dugun kontzientzian dago. Horregatik, egoera batean murgilduta nagoenean hiru jarrera bila ditzaket:

- 1. Arrazoi dudala uste dut eta gauzak nire ustez egon beharko luketen bezala egotea lortu nahi dut.** Horretarako, hainbat modu erabiltzen ditut: esate baterako, inposatzea, mehatxatzea, zigortzea, saritzea, errudun sentiaraztea, konbentzitzea, aholkuak ematea, diagnostikatzea...
- 2. Ezer ez egin, pasatzen utzi.** Batzuetan, desgaitzeko modua izan daiteke (ezikusiarrena egin, ondoeza ekidin edo ukatu, atsegindu nahi izatea...), baina gatazka, askotan, ez da desagertzen eta borroka bera errepikatzeaz gain, gatazka desegitea konplexuago bihur daiteke.
- 3. Konexioa eta lankidetzatza bilatzen ditut.** Nire asmoa, bizitzen edo esperimentatzen ari naizena eta besteari gertatzen ari zaiona bat egitea dena. Bion beharrak ulertu nahi ditut eta denak (nireak eta bestearenak) modu orekatuan landu, denok hobeto egoteko irtenbidea aurkitzeko.

Gure asmoa zein den egiaztatzeko, Marshall Rosenbergekin galdera honi erantzutea proposatzen zuten: «Zertan jolastu nahi duzu, arrazoia edukitzean ala zoriontsu izaten?».

KEB ez da zerbait mekanikoa edo automatikoa, eta erabiltzen ditugun hitzek ez dute bermatzen komunikazio mota hori.

Gure elkarrekintzetan jartzen dugun kontzientziaren eta intzidentziaren baitan dago, eta, horregatik, dudan asmoa edo energia esanguratsuagoa izango da erabili ditzakedan hitz zehatz edo perfektuak baino.

ELKAR ULERMENERAKO TRESNAK (KONEXIOA)

Bizitzen ari naizen egoera konkretu batean, niri eta beste pertsonari gertatzen ari zaionarekin konektatzeak nire esperientzia pertsonala zintzotasunez adierazteko gaitasuna eta besteari enpatiaz entzuteko gaitasuna eskatzen ditu. Eta hori, hautematen edo jasotzen ditudan hitz edo ekintzak baino haratago doa. Bi gaitasun horietako bakoitzak lau osagai ditu: egoeraren behaketa, pizten diren sentimenduak ezagutzea, ditugun beharrak identifikatzea eta eskaera egitea (beharrak asetzen lagunduko didaten ekintza konkretuak).

Zintzotasunez adierazteko edo enpatiaz entzuteko gai izateko, ezagutu beharreko piezarik garrantzitsuenak ase nahian gabiltzan beharrak dira. Gizaki guztiontzat unibertsalak diren balore, grina edo aspektu garrantzitsuak, edonor hazi eta loratzeko beharrezkoak ditugun baldintza ezinbestekoak dira. Horiek gure ekintzak egiten ditugun moduan egitearen arrazoi edo motorra dira, gure motibazioak. Marshallek zioen moduan, gizakiok gure premiak asetzen saiatu besterik ez dugu egiten, horretarako erabiltzen ditugun modu edo estrategiak, batzuetan, traketsak, kaltegarriak edo tragikoak izan arren.

Eta prozesu honetan, sentimenduak mezulariak dira, gure beharrak ase diren ala ez ohartarazten diguten abisuak (sentimendu atseginak dira beharrak asetuta ditugun seinale, eta desatseginak, ordea, ase gabe dauden beharren adierazle). Epaiak, etiketak, iritziak, exijentziak, «betebeharrak», mehatxuak... ere gure beharren batek atentzioa behar duenaren seinale dira.

Atseginak edo desatseginak suertatzen zaizkigun egoeretan, niri gertatzen ari zaidanaren inguruan adierazpen zintzoa egin dezaket edo besteari enpatiaz entzun diezaioket, bieran aurrez aipatutako lau osagai horiei arreta eskainita. Aldi berean, sarritan beharrezkoa da gelditzea, harremanari eta neuri zerbait aberasgarria eskaini nahi badiot. Geldialdi horietan ere lau osagaien erreparatzeak une hori elikagarria bihur dezake, horrek nire bizitzari bakea eta eraginkortasuna ekarriko baititzio.

PROZESUA

Nire arreta aipatutako lau osagaietara zuzentzeko jarraitu behar dudana bidea honako hau da, bai eszenatokitik kanpo gelditzen naizenean, baita egoera errealetan jolasteko baldintza nahikoa ditudanean ere.

Argitu zer gertatzen zaidan

BEHAKETA: Gertaeren deskribapena egin, ikusi edo entzuten dudanarekin. Adibidez: «Gaur ere ez duzu egin eskatu nizun zeregina, beti berdin» esaten didazunean...



SENTIMENDUAK: Nola sentitzen naiz hau gertatzen denean? Adibidez: «Triste, haserre, ezinean sentitzen naiz...».

BEHARRAK: Identifikatu horrela sentiaraztera eramaten nauten balore, irrika, premia, edo aspektu garrantzitsuak. Adibidez: «Ditudan baldintzen inguruan hausnartu behar dut, egin ditudan gauzak aintzat hartu eta ez soilik egin ez dudanari erreparatu, eta batez ere, egitea eskatzen zaidan guztia egin ahal izateko laguntza behar dudan onartua».

ESKAERA: Gure bizitza aberasteko, gure beharrak zaintzeko, norberari, besteari edo hirugarren bati galdetu ahal diot ekintza zehatzei buruz. Adibidez: «Posible duzu aste honetan egin ditudan gauzetatik gustatu zaizkizun bi edo hiru esatea?».

Entzun besteari zer gertatzen zaion

BEHAKETA: Egin gertaeren deskribapena ikusten, ikusten eta entzuten diren ekintza konkretuekin. Adibidez: «Eskerra hori egin zenidala hamabost egun igaro direla ikusten duzunean...».

SENTIMENDUAK: Nola uste duzu sentitzen dela gertatzen ari denarekin? Adibidez: «Beharbada haserre, zapuztuta eta ezinean».

BEHARRAK: Identifikatu horrela sentitzera bultzatzen duten pertsona horren balore, premia edo aspektu garrantzitsuak. Adibidez: «Beharbada laguntza behar izateaz gain, zure gauzei ere garrantzia eman diezaiedan eta haiek baloratzea behar duzulako, eskatzen duzuna kontutan hartuko dela konfiantza izateko...».

ESKAERA: Beste pertsonari bere beharrak asetzeko egitea gustatuko litzaikekeen ekintza konkretuak. Adibidez: «Ikaragarri gustatuko litzaizuke gaur egin dudala entzungo bazenit...».

BAIEZTAPENA: Babestu beste pertsonarekin egin dugun hipotesia zuzena den ala ez. Adibidez: «Horrela da? Hau da gertatzen zaizuna?».

Ez dago ordena zorrotzik adierazpen zintzotik edo entzute enpatikotik jokatzeko hasteko. Aldi berean, egoera kritikoa denean edo beste pertsonak ulermena behar duela susmatzen dudanean eta nik neureari eutsi dieziokedala sentitzen dudanean, enpatiaz entzutetik hastea lagungarria da, bere beharrak ere axola zaizkigula helarazita, nahiz eta aukeratu duen estrategiarekin ados ez egon. Jarrera eta disposizio horrek asko lagundu dezake solaskideek belarriak ireki eta guri gertatzen zaiguna ere errespetuz entzuten.

Jakinekoa da bestearrekin ados ez gauden zerbait modu horretan entzutea ez dela zerutik erortzen den zerbait, eta, beraz, praktika eskatzen duela. Horrek ez du esan nahi uneoro zentratu egon edo lauak izan behar dugunik, eta une guztietan aztoratu gabe eta entzute oso eskainiz. Gizakiak gara, mugatuak, eta nire erronka da ahalik eta kontzientzia gehien edukitzea, nigandik eta besteengandik noiz deskonektatzen naizen ohartzeko. Modu horretan, nahi eta ahal dudanean, zerbait gehiago aurkitzeko, ibilbide zehatzak bizitzaren zerbizura jartzea aukeratzen dut, bizitzari alienatuta ibili beharrean.

LABURPENEA

KEBn oinarritu naiteke nire harremanak ahalik eta gehien elikatzeko, neure buruarekin dudan harremana barne. Nire izate osoan zer gertatzen den argitzeak lagundu diezadake adierazi nahi dudana zintzotasunez esaten (norberaz hitz eginez eta ez zutaz). Baita bestea bere osotasunean entzuteak ere, hitzetatik eta ikusten edo interpretatzen ditugun ekintzetatik haratago.

Horretarako, nire begirada erlazioan jarrita, beharrezkoa zait barneko espazio bat irekitzea asmo horrekin lerrokatuta, konexioaren bitartez, neurea eta bestearena ulertu ahal izateko. Hori, zalantzarik gabe, arrazoiak eduki nahi izatea edo bestea aldatzen saiatzea baino eraginkorragoa da.

KEBren asmoa, laburbilduz, kontzientzia eta kalitate handiko konexioa lortzea da, nire beharrak eta bestearenak axola zaizkidala ustearekin batera. Hau guztia «irabazi/irabazi» irtenbidea aurkitzeko asmoarekin, hau da, hazteko aukerak zabalduz, horrek bi aldean asebetetzea ekar dezakeelako. ■

Mezu elektroniko komunikatiboak idazteko zenbait aholku I

IZASKUN ZUNTZUNEGI LEGARRETA
HIZKUNTZA NORMALKUNTZAKO TEKNIKARIA (IVAP)

Posta elektroniko, lanean eta lanetik kanpo, egunero erabiltzen dugun izan arren, ez dugu beti modu egokian erabiltzen; horregatik, pentsatu dugu mezuak hobetzen laguntzeko aholku batzuk ematea. Azkenaldian, mezu elektronikoek «formalitatea» eta «ofizialtasuna» galdu dute, eta abisu arrunten itxura hartu dute. Formalitatea galdu dute, agian, sare sozialetan «gaizki» idazteko moda mezu elektronikoen eremura ekarri dugulako, baina gaizki edo modu informalean idaztea ez da batere egokia laneko mezuez ari garenean; beraz, zaindu beharko genuke gure mezuen egokitasuna. Dena ez da libre.

Mezu elektroniko, oinarrian, gutun bat da. Egia da mezu elektronikoetan gutun tradizioaletan baino lengoia arruntagoa erabil dezakegula, baina ezin dugu edozein modutan idatzi. Izan ere, idazten ditugun testu guztiek bezala, gutxieneko baldintza batzuk bete behar dituzte, baldin eta gure mezuak erabiltzaileak irakurtzea eta ulertzea nahi badugu.

Mezu eraginkorrak idatzi nahi baditugu, tresnak eskaintzen dituen baliabideez gain, beste hainbat aspektu ere kontuan izan beharko ditugu. Besteak beste, zein elementu jarri, horiek nola aurkeztu, eta abar.

Gauzak horrela, artikulua honetan eta aurrerago argitaratuko dugun beste batean, erraz aplikatzeko moduko aholku batzuk bildu eta sailkatu ditugu:

Artikulu honetan landuko direnak:

- Mezu bat jasotzen dugunean, zer egin?
- Mezu bat idatzi nahi dugunean, zein egitura eman?
- Mezuak izan beharreko atalak

Hurrengo artikulu batean jorratuko direnak:

- Diseinu aldetik kontuan hartu beharrekoak
- Idaztean egin ohi ditugun akatsak
- Erantsitako dokumentuak
- Zuzendu, bidali baino lehen

Mezu bat jasotzen dugunean, zer egin?

Jasotako mezuak erantzutea da egokiena, eta ahalik eta lasterren bada, hobe. Egoeraren arabera, erantzuteko hartzen dugun denbora aldatu egingo da, ba-

tzuetan hobe izango baita denbora hori luzatzea erantzun egokiago bat emateko.

Arau orokor gisa, ez da komeni erantzuteko epea lanegun bat baino gehiago luzatzea. Hala ere, mezuaren garrantziak justifikatzen badu eta ezin baduzu egun bertan erantzun, epea luza dezakezu. Hala egiten baduzu, hobe da hartzaileari jakinaraztea mezua irakurri duzula eta aurrerago erantzungo diozula.

Behin-behineko isiluneaz ere balia zaitetzke. Esate baterako, asko haserrarazi zaituen gai baten aurrean, «berotan» ez erantzutea erabaki dezakezu. Halakoean, hausnartzeko eta lasaitzeko denbora tarte bat hartzea justifikatuta egon daiteke, nahiz eta horrek erantzuna atzera dezakeen.

Eta azkenik, aldi batez lineaz kanpo egongo garenerako aholku praktikoa bat. Adibidez, oporretara zoazenean, posta elektronikoaren zerbitzaria konfiguratu dezakezu mezu bat jasotzen duzun bakoitzean jakinarazpen abisua bidal dezan. Jakinarazpen mezuek zeharka epe motzean erantzuteko ezintasuna adierazten dute. Abisuan nahi duzun mezua utz dezakezu: zein egunetan itzuliko zaren, edo lankideren baten helbide elektroniko nahiz telefono zenbakia gehitu dezakezu idatzi dizunak norekin komunikatu izan dezan.

Atal honetan erantzuna eskatzen duten mezuez aritu bagara ere, kontuan izan behar dugu sarritan erantzunik behar ez duten mezuak jasotzen ditugula. Esate baterako, talde handi bati bidalitako informazio- mezuei ez dago zertan

Gaia

Gaia: Idatzizko kolaborazio bat eskatzea *Administrazioa Euskaraz* aldizkarirako
Eranskina: Lanaren inguruko xehetasun gehiago

Eranskina

Zabala jauna: **Hasiera agurra**

Amaia Arrien naiz, IVAPeko Administrazio Hizkera Ataleko teknikaria. Mezu honen bidez, idatzizko kolaborazio bat eskatu nahi nizuke **Aurkezpena**
Administrazioa Euskaraz aldizkarirako.

Hurrengo zenbakian, elikagai funtzionalei buruzko artikulu bat argitaratu nahi genuke. EHUren webgunean ikusi dugu Elikadura eta Osasuna Unibertsitate Masterra eskaintzen duzuela; hori dela eta, nahi genuke zuen taldeko kideren batek horren inguruan idaztea.

Lana egitea erabakitzen baduzue, erantsitako dokumentuan aurkituko dituzu egin beharreko lanaren inguruko xehetasun gehiago. **Mezuaren muina**
 Edozein zalantza izatekotan, jar zaitez nirekin kontaktuan adierazteko telefono edo helbide elektronikoak erabiltuta.

Zure erantzunaren zain geratzen naiz. **Bukaerako agurra**

Ondo izan.

AMAIIA ARRIEN ZUZAELA **Sinadura**
 Administrazio Hizkera Atala

IVAP
 INSTITUTO VASCO DE INVESTIGACIONES LINGÜÍSTICAS Y SOCIOLINGÜÍSTICAS

945 000 000
 a-arrienzuza@ivap.eus
 © 2018 Eusko Jaurlaritza

erantzun, besterik gabe, informatzea baitute helburu.

Mezu bat idatzi nahi dugunean, zein egitura eman?

Mezuak era egokian aurkezteko, eta komunikatiboak izan daitezen nola egituratu azalduko dugu jarraian. Batetik, mezuak izan beharreko atalez arituko gara, eta, bestetik, diseinuaz.

Mezuak izan beharreko atalak

Mezuak hainbat atalez osatzen dira. Guk aipagarrienak soilik azalduko ditugu.

a. Gaia

Gaia eremuan jartzen duguna mezuaren titulua da, mezuaren edukia laburbiltzen duena. Ere horretan, mezuaren edukia era zehatz, labur eta argian islatu behar da. Modu laburrean eta hizkera argia erabiltuta, mezu zehatzak emango ditugu, erraz ulertzeko modukoak, eta nahasketarako aukerarik emango ez dutenak. Gainera, ondo aukeratu behar dugu bertan erabiliko dugun hizkera, hartzailak ikusiko duen lehenengo izango baita, eta horren arabera erabaki dezake mezua ireki eta irakurtzea, edo jaramonik ez egitea.

Mezuei erantzuteko, *Erantzun mezuari* botoia sakatzen dugunean, automatikoki kargatzen da erantzuten ari garen mezuaren gaia aurretik *Re* jarrita, baina, nahi izanez gero, alda dezakegu.

Gaian jartzen dugunak mezuen sailkatze eta artxibatze lanarekin ere lotura es-

tua du; horregatik, gai beraren inguruko mezuek —eduki aldetik lotura duten mezuek— **gaiaren deskripzioa bera edo oso antzekoa** izatea komeni da, hain zuzen ere, sailkatze eta artxibatze lana errazteko.

b. Hasierako agurra

Mezu gehienak agur batekin hasten dira, baina ez da beharrezkoa kasu guztietan. Esate baterako, erantzun mezuetan soberra dago, eta, beraz, ezegokia izan daiteke gehitzea. Hori bai, arrazoiren batengatik ez bada berehala erantzun, egokia da agur bat gehitzea.

Erakundeetan posta elektronikoa erabiltzen da, kasurako, pertsonaleko kide guztiei mezuak bidaltzeko, eta halako mezuek ez dute agur pertsonalizatu beharrik. Alabaina, halakoetan egokiak izan daitezke *Lankide hori* bezalako agurrak.

Egoerak egoera, mezurik gehienetan erabiliko dugu hasierako agurra. Berau egoki aukeratzeko, ondo aztertu behar dugu nor izango den mezuaren hartzaila eta zein den pertsona horrekin daukagun harremana.

Hamaika motatako agurrak daude, eta hartzailarekin daukagun harremanaren arabera aukeratzeko dugu egokien datorriguna. Kontuan hartzekoa da guri nola zuzendu zaigun, erantzuna erregistro berean emateko; noski, beti ere uste badugu haiek erregistro egokia eta errespetuzkoa erabili dutela.

Hasierako agurrak beti bi puntuz lagunduta joango dira (*Jauna:/Andre agurga-*

ria:/Lankide hori...); ez erabili, beraz, koma, puntua edo bestelako puntuaziozeinurik.

c. Bukerako agurra

Azken agurrak testua mugatzen du, mezuaren muina puntu horretan bukatzen dela iragartzen du. Lerro bakarreko esaldia izaten da (*Mila esker zure laguntzagatik, Gure eskaria kontuan hartuko duzulakoan...*), eta mezuaren muinetik bereizteko espazio zuria uzten da bien artean. Ez da komeni oharririk gehitzea, hartzailak agurraren ondoren ez baitu irakurtzen jarraituko.

d. Mezuaren muina

Mezuaren muina da, gaiarekin batera, mezuaren parterik garrantzitsuenak. Hartzailari komunikatu nahi dieguna idatziko dugu bertan. Komeni da testua honelakoa izatea, mezu ororen helburua ulertua izatea baita:

- **Zuzena:** egoki puntuatua eta akats ortografikorik gabea.
- **Argia:** irakurleari ulermena errazteko egitura errazez osatua.
- **Ulergarria:** komunikazioa ahalbidetzen duena, testuaren esanahia ongi transmitituz.

e. Sinadura

Sinadurarekin mezua ixten dugu. Bidaltzailea identifikatzeko elementua da, eta, horrez gain, identitate hori hedatzen die beste erabiltzaile batzuei mezua birbidaltzean. ■

Tximeleta efektua

AMAIA TELLERIA

IDAZLE ESKOLAKO IKASLE OHIA



Egun hartan mozorroturik zebilen mundu guztia, baina oharkabeen pasa zitzaidan hasieran. Inauterietarako asko falta zen artean eta neure umetasun hartan, banuen aurreragoko lanik... Nola konturatuko nintzen, ba, lehenago?

Bi ohitura txar behar izan nituen horretarako. Eta ohitura horiek errotu ez zitzaizkidan bezala, egun hura ondo fosildu zitzaidan. Mozorroen azpiko egia biluzia ikusi nuen eguna zen, azken finean, hain gordin, hain hauskor. Kasik burbuiladun plastiko babeslez estaltzeko gogoia jarri zitzaidan, desengainuaren metal zaporea ahoan zabaltzen zitzaidala. Gogoan dut irakaslea hizketan ari zenean marrazkiak egiten ari nintzela. Gaizki egina. «Utzi orria eta entzun», patxadatsu hitz egin zidan, ahots gozoaz. Lotsatuta jaso nuen orria, kasu egiten ari nintzela erakusteko. Alaitzen gustukoena izateko asko saiatzen nintzen, hura bezalakoa izan nahi bainuen handitan: ile luze-luzea, belarritako politak. Liluraturik ninduen haren itxurak! Eta hori gutxi balitz, guztia zekien... Den-dena.

Olgak ere horrelakoa izan nahi zuen, egiten zuen keinu bakoitzean igartzen zitzaion. Nire lagunik onena zen Olga, nahiz eta aurreko urtean etorri eskolara. Iritsi zenean Europako mapan Bulgaria margotzen aritu ginen Alaitzekin, akordatzen naiz. Sudurtxo borobil-borobila zeukan, eta masailtan bi zulo txiki agertzen zitzaizkion irribarre egiten zuenean; hasieratik jakin nuen nire laguna izango zela.

Nire gurasoei asko gustatzen zitzairen haren familia; euskaraz asko saiatzen zirela

esaten zuten beti, baina Olga pixka bat lotsatzen zen ez zutelako guztiz ondo ahoskatzen. Berak bai, oso ondo hitz egiten zuen. Eta beti-beti euskaraz. Alaitzek horrela egiten zuelako, agian. Edo nik ere euskaraz egiten nuelako. Ez dakit. Egun hartara arte hala izan zen, behintzat. Gero gertatu zenari *tximeleta efektua* deitzen omen zaio: gertakari txikiak sortutako kaosari.

Bigarren aldi batez harrapatu ninduen Alaitzek ilargian. Segituan altxatu nintzen, eta muralari paretaren kontra eutsi. Gelako hizkuntzen mapa egin genuen goiz hartan, Olgak *Ongi etorri* bulgariaraz idatzi zuen, haien letra arraroekin, Samrak arabieraz eta Juan Carlosek gaztelaniaz. Ederra geratu zen paretan erantsita, etxera eraman nahiko nukeela bururatu zitzaidan. Pentsa!

Mahai ertzean eseri zen bukatu genuenean, eta handik aurrerako hitzak eta keinuak, hainbatek arrosarioa bezalaxe errezitatuko nituzke, hitzez hitz: «bukatzeko ordua da, hasi jasotzen. Baina ez ahaztu hizkuntzak altxorra direla eta geure esku artean daukagun hau magikoa dela! Geuk zaintzen ez badugu, desagertu egingo da!». Haren begiradaren hipnosiaz, baietz erantzun genion guztiok, arrazoi zeukala. Ezin besterik erantzun, Alaitzek hori esaten bazuen. Erlojuari begiratu zion, saltoan altxatu eta koaderno eskuan hartuta joan zen bulegora, soineko berria dantzan zermala. Oso guapa zegoen egun hartan, ez dut sekula ahaztuko. Saltoan altxatu nintzen ni ere, hura bezala.

Juan Carlosek ez zuen minutu bat ere itxaron muralaren ondotik pasatze-

rakoan *nahi gabe* lurrera botatzeko. «Kontuz ibili!» modukoren bat bota zion Olgak eskuak jasoz.

«*Yo no fui*», erantzungo zion haren ohiko kopeta zimurtuarekin. Baloia hartu, eta korrika irten zen, ezer gehiago azaldu gabe. Amak berarekin pazientzia izateko esaten zidan, etorri berria izanda ez zela erraza izango gelan bere tokia aurkitzea... Baina nik gelako erregea bailitzan ibiltzen zela uste nuen. Ezin aterako zen beti berearekin. Alaitzi kontatzea proposatu nuen, eta Olgak baietz egin zidan buruarekin, amorratuta.

Andereñoaren bulegora joan ginenean, algara batzuk entzun genituen barrutik: «¿*Te ha dicho eso?* Ai ama, ¡*qué bueno!*».

Gaztelania irakasleen bulegoan? Olgari begiratu nion harrirituta, eta begiak zabalzabal eginda ikusi nuen. Sorbaldak jaso nituen, neure inozentzian; azalpenen bat egongo zen. Poliki-poliki bultzatu nuen atea eta andereño Alaitz ikusi nuen, irribarrez. Haren hitzak airean izoztuta bezala geratu ziren: «*Con lo que es, no me extraña*». Irribarrea galdu gabe begiratu gintuen zer gertatzen zen galdetzeko, ezer gertatuko ez balitz bezala. Enbarazu egiten ari ginela sentitu nuen, sabela nahastuta. Etsipenaren xomorroa tximeleta bihurtzen ari al zen nire barruan?

Marrazkitxoak egiteaz gain, banuen beste ohitura txar bat ere: atea zabaldu aurretik ez jotzearena. Urte batzuk behar izan nituen konturatze horrela irakasleak mozorroa jartzeko denborarik gabe uzten nituela. Olga eta bion harremana gaztelaniazkoa bihurtu zela ohartzeko behar izan nituen berberak. ■

Antibiotikoen erabilera okerra

LIERNI TXINTXURRETA
FARMAZIALARIA

SARRERA

Antibiotikoen erresistentziak gora egiten ari dira mundu osoan zehar. Erresistentzia mekanismo berriak agertzen eta zabaltzen ari dira, eta, ondorioz, ohiko infekzioen tratamenduen eraginkortasuna arriskuan jartzen. Pneumonia, tuberkulosia, gonorrea edo salmonellosia gero eta arriskutsuagoak bihurtzen ari dira, kasu batzuetan tratatu ezinak izanik, antibiotikoen eraginkortasun eza dela eta. Osasun profesionalen gehiegizko preskripzioak eta gaixoen gehiegizko erabilerak garai post antibiotiko batera garamatzate, non, premiazko neurririk hartu ezean, ohiko infekzioak hilkorrak izango diren berriro ere.

Antibiotikoen erabilera pil-pilean dagoen gaia da azken hilabeteetan. Izan ere, antibiotikoen erabilera okerrak edota gehiegizkoak erresistentziak agertzea eragiten eta azkartzen du, eta, beraz, osasun publikoko arazo larria bihurtu da. Munduko Osasun Erakundearen (MOE) esanetan lehen mailako premia da, eta hori dela eta, plan eta kanpaina desberdinak jarri ditu martxan arazoari aurre egin nahian. «Antibiotikoak ez dira jolasteko» lelopean gogorarazi du Osasun Ministerioak, 2017ko urriaren 31n argitaratutako kanpainan, antibiotikoak ez direla eraginkorrak birusen aurrean, gripearen aurrean adibidez.

Gaur egun, merkatuan dauden antibiotiko askoren aurrean erresistenteak diren mikroorganismoak daude, multierresistenteak. Denborarekin erresis-

tentzia mekanismo desberdinak garatuz joan dira, antibiotiko askoren eragina saihesteko gai izateraino. Aurrez aipatu bezala, egoera honek ondorio larriak ekar ditzake etorkizunera begira, berehalako neurririk hartu ezean. Organo transplanteak, kimioterapia eta prozedura kirurgikoak, besteak beste, gaixoaren bizitza arriskuan jar dezakete infekzioen prebentzio eta tratamendurako antibiotiko eraginkorrik egon ezean. Mikroorganismo erresistenteak dira ebakuntza osteko infekzioen % 50en erantzuleak. Infekzioen prebentzio egokia eta kontrola eginez, osasun zaintzarekin erlazionatutako infekzioak % 30 gutxitu daitezkeela adierazi du MOEk.

ANTIBIOTIKOAK

Baina zer dira antibiotikoak? Zein da hauek burutzen duten ekintza? Antibiotiko hitza, ekintza antibakterianoa duten antimikrobianoak definitzeko erabiltzen da. Dena den, antimikrobianoa termino globalagoa da; bertan, antibakteriano, antibiriko edo antifungikoak sailka daitezke, besteak beste. Hortaz, denok argi izan behar dugu antibiotikoak bakterioen aurka soilik direla eraginkorrak.

Antibiotiko hauek bakterioen heriotza eragin dezakete. Baina nola burutzen dute ekintza hori? Taldearen arabera mekanismo desberdinak dituzte, eta horrek antibiotikoaren espektroa zehazten du. Erresistentziak agertzeak espektro zabaleko antibiotikoak erabiltzera behartu gaitu. Antibiotiko horiek mikro-

organismo gehiagoren aurrean dira eraginkorrak, horregatik esaten da espektro zabalekoak direla. Terapiaren ikuspuntutik, azken lerroko antibiotikoak dira. Hala ere, horien aurkako erresistentziak ugaritzen ari dira gure medioan. Erresistentzia maila kezagarriak izateaz gain, garapen bidean dauden antibiotiko kopurua oso eskasa dela kontuan izanik, infekzioen aurkako tratamenduak agortzen ari direla esan genezake.

Gizakiotan antibiotikoak infekzioen prebentzio edo tratamendurako erabiltzen dira, hau da, mikroorganismo kantitatea kontrolatu eta gutxitzeko asmoarekin. Ondoren, sistema immunea gai izango da mikroorganismo hori deuseztatzeko, infekzioa sendatzeko. Baina, gizakietan ez ezik, antibiotikoak animalietan ere erabiltzen dira. Mekanismo zehatza ezagutzen ez den arren, animalien hazkuntza azkartu eta potentziazteko gai direla frogatu da. Horrenbestez, oso erabiliak dira abeltzaintzan horrek ekartzen dituen onura ekonomikoak direla eta. Orain arte kezka handirik sortu ez duen gaia izan den arren, arreta handia jarri behar zaion kontua dela adierazi du MOEk. 2050. urterako animalietako antibiotikoen kontsumoa % 70 igoko dela estimatu du. Giza kontsumorako animalietan egiten den antibiotikoen erabilera honek erresistentzien agerpena ekar lezake. Animalia horiek mikroorganismoak dituzte floran, eta antibiotikoekiko erresistentzia mekanismoak garatu ditzakete denborarekin; ondoren, erresistentzia

horiek gizakiongana pasatzen dira haragiaren kontsumoaren bidez. MOEk komunikatu bat argitaratu du animalietan antibiotikoen kontsumoaren debekua- ren inguruan. Erakundearen zuzendaria den Tedros Adhanom Ghebreyesus-en hitzetan, «ezinbestekoa da neurri sendo eta iraunkorrak hartzea sektore guztietan, antibiotikoen erresistentzien agerpena atzeratu eta mundua salbu mantentzeko».

Baina itzul gaitezen osasun arlora. Zein da gaur egungo egoera? Espainian, ospitaletan ematen den antibiotikoen kontsumoa Europako beste herrialdeen batez besteko kontsumoa baino %40 altuagoa da. Ospitaleratuta dauden pazienteen %46k, zehazki, tratamendu antibiotikoa jasotzen du egonaldian zehar. Hala ere, antibiotikoen erabileraren %90 komunitatean egiten da, hau da, lehen mailako arreta zentroetan. Beraz, oso garrantzitsua da erabilera hori gutxitzen saiatzea. Horretan denok dugu zer egina, bai osasun profesionalek, preskripzioa hobetuz, bai pazienteek, antibiotikoen erabilera zuzena eginez.

ERABILERA OKERRAK

Antibiotikoen erabilera datuak ikusita, helburu nagusi bat aipatzekotan, erabilera arrazional bat bultzatzea litzateke. Hartu beharreko neurriak argiak dira:

- Medikuek preskribitzean soilik kontsumitu antibiotikoak.
- Ez eskatu antibiotikorik medikuek horretarako beharrik ez duzula dioten kasuetan.
- Osasun profesionalaren gomendioa jarraitu beti, antibiotikoen erabilerari dagokionez.

- Ez partekatu edo erabili antibiotiko hondarririk.
- Infekzioak saihesten saiatu. Horretarako, eskuak ondo eta maiz garbitu, jakien prestaketan higiena bermatu, gaixoeekin kontaktua ekiditen saiatu eta txertaketa-programa eguneratuta izan.

Aurrez aipatu bezala, antibiotikoak bakterioen eta soilik bakterioen aurkako agenteak dira. Maiz egiten den akats larria da beste etiologia bateko infekzioen tratamendu gisa antibiotikoak erabiltzea. Horrek erresistentzien agerpena bultzatu besterik ez baitu egiten.

Gaur egun, farmazia bulego batean antibiotiko bat erosi ahal izateko, derrigorrezkoa da medikuaren errezeta izatea. Beraz, preskripziorik gabe ezin izango dugu antibiotikorik eskuratu.

Etxean soberan geratutako antibiotikoak erabiltzera jotzen dugu askotan. Jarrera guztiz desegokia da hori, askotan medikuaren diagnostikorik gabe egiten dugulako, eta, beraz, bakteriorik tartean dagoen jakin gabe.

Oso garrantzitsua da antibiotikoa osasun profesionalak adierazitako eran hartzea, iraupena errespetatuz. Antibiotiko batzuen kasuan, gainera, ezinbestekoa da ordu tartea errespetatzea. Sarri aipatzen den kontua izan arren, garrantzia handia dauka tratamendua bukatzeak. Nahiz eta jada sintomarik ez izan, azken egunera arte jarraitu behar da antibiotikoa hartzen. Epea igaro aurretik tratamendua eteteak erresistentzien agerpena bultzatu dezake, bakterioa ez baita guztiz hil eta antibiotiko horren aurka egiteko mekanismoak garatu baititzaie.

Tratamendua bukatu ondoren, SIGRE puntuetara eraman behar da soberan

geratutako antibiotikoa, ez da etxean antibiotiko hondarririk gorde behar. Farmazia bulegoetan egon ohi dira edukiontzia horiek; medikamenduen bilketa eta suntsipen prozesu kontrolatu bat bermatzen dute, eta, beraz, ingurumena errespetatu. Antibiotikoak modu egokian erabiltzeaz gain, oso garrantzitsua da infekzioak prebenitzea, modu horretan farmakoek erabilera gutxitzen baitugu. Horretarako, lehen esan bezala, bermatu behar ditugu txertaketa, eskuak garbitzea eta, oro har, higie-ne ohitura egokiak.

ONDORIOAK

Antibiotikoen erresistentzia gaur egun dugun osasun publikoko arazo larrietako bat da. Medikuntzan eta orokorrean osasun arloan, antibiotikoen aurkikuntzak eta garapenak aurrerapauso handiak ematen lagundu digu. Gaur egun, berriz, urte askotan eginiko lana pikutara bidaltzen ari gara. Gaixotasun askoren tratamendua asko zailtzen ari da eta infekzio larri horien ondoriozko heriotza kopurua gorantz ari da egiten. Alderdi ekonomikoak ere garrantzia du, infekzio larri eta multieresistente horien tratamenduen kostuak igo ditu, ospitaleko egonaldiak luzatu egiten baitira eta erabili beharreko antibiotikoen kostua ere igo egiten baita.

Horrenbestez, premiazkoa da antibiotikoen preskripzio eta erabileran aldaketak ematea. Nahiz eta antibiotiko berriak garatu, denon portaera aldatu ezean arazoak bere horretan jarraituko du. Ez dezagun pentsa norberaren ekintza alferrikakoa denik, tantaz tanta sortzen baita itsasoa. Lagundu dezagun antibiotikoek sendatzen jarrai dezaten. ■

Kolokan al dago pentsio sistema publikoa?

MAITE ORUE
KAZETARIA

Lagunen bati, gurasoei, egunero ogia erostean okindegian ikusten duzun ezezagunari, aldameneko etxean bizi den alargunari, tabernako barran zaudela alboan dagoen neska-mutil koadrilari... Ziur aski hainbat egoeratan entzun izan dugu pentsioen inguruko elkarrizketa edo iruzkinen bat. Gehienetan barre artean, egungo langileei pentsioak ordaintzeko beste diru ez dela egongo entzun edo esan dugu baten baino gehiagotan; edota erretiroa atzeratu beharrean ibiliko garela, pentsio duin bat izateko. Baina, egia al da agortzen ari dela pentsioetara bideratutako diru kopurua? Zahartzaro duina izango al dugu? Ba al dago kezkatzeko arrazoirik? Arduratzeko motiborik dagoen aztertzeko, goazen, lehenbizi, Espainiako estatuko pentsio sistema publikoaren inguruko oinarritzko zenbait zertzelada ematera.



Behar besteko diru sarrerarik ez daukanean, pertsona batek erakunderen baitatik jasotzen duen dirua da pentsioa; kasurako, erretiroa hartzean, alarguntzean edo lanerako desgaitasuna aitortzen zaionean. Pentsio sistemak publikoak edo pribatuak izan daitezke. Pribatuen kasuan, pentsiodunak bere aurrezkien kapitalizazioaz edo aurretik kontratatutako aseguru gisa jasoko du pentsioa. Pentsio sistema publikoa, berriz, estatuak mantentzen duen mekanismo bat da; herritarren esku baliabide batzuk jartzen ditu erretiro, elbarritasun edota heriotza kasuetan bizimodu duin bat bermatze aldera.

Espainiako estatuan Gizarte Segurantzaren barruan dago pentsio sistema publikoa, eta berori finantzaketa modu mistoaz baliatzen da. Batez ere, bi ditu diru iturri nagusiak: Espainiako Gobernuaren aurrekontuak, eta kotizazio edo kuotak. Edonola ere, errekurtsio ekonomikorik garrantzitsuena langileen soldatetik eratorritakoa da. Horrez gain, sistema pribatua ez bezala, elkartasun printzipio batez arautzen da pentsio sistema publikoa: ekarpenek funts komun bat osatzen dute, eta funts horretatik ordainduko dira guztientzako pentsioak. EHUko Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle da Elisabet Errandonea, eta Espainiako estatuko pentsio sistema publikoa aztertu du bere tesian. Hark azaldu digunez, urteen joan-etorrian aldaketa asko jasan ditu sistemak, baina ereduaren «ezaugarri nagusiek

iraun» egin dute. «Banaketa sistema bat da, alegia, hilerko kotizazioengatik jasotzen diren diru sarrerak momentuko prestazio ekonomikoak ordaintzeko erabiltzen dira. Sistema nagusiki kontributiboa da, hau da, besteren kontuko eta norbere kontuko langileak babesten ditu, eta batez ere pertsona horiek egindako kontribuzioetan oinarritzen da. Baina baditu behar egoeran daudenentzat elkartasun elementuak, deus ordaindu ez duten edo zerga nahikorik ordaindu ez duten pertsonak babesteko erak».

Bada, bost printzipio nagusitan oinarritzen da pentsio sistema publikoa:


1. **Banaketa.** Aktibo edo lanean dauden langileen kotizazioen bidez finantzatzen dira momentuan dauden prestazioak.
2. **Proporzionaltasun kontributiboa.** Langileak bere lan bizitzan zehar egindako kotizazioen arabera izango da jasoko duen prestazioa.
3. **Unibertsaltasuna.** Kontribuziorik egin ez dutenek ere prestazioak jaso ahalko dituzte oinarritzko beharrianak asetzeko.
4. **Kudeaketa publikoa.** Gizarte Segurantzaren sistema entitate publikoek kudeatu eta finantzatu behar dute.
5. **Prestazioen nahikotasuna.** Prestazioen zenbatekoak nahikoa izan behar du unean uneko beharrianak babesten direla bermatzeko.

Pentsioak gaur egun

Abendu hasieran 3.586 milioi euro hartu zituen Gizarte Segurantzak pentsioen funtsetik, urte bukaerako aparteko saria ordaintzeko; eta pentsioetarako eskatu zuen mailegutik 4.206 milioi erabiliko ditu zeregin horretarako. Espainiako Gobernuak orduko hartan jakinarazi zuenez, ohiko sariak, apartekoak eta horien PFEZ ordaintzeko 17.470 milioi euro behar zituen. Zenbateko horren gehiengoa (9.678 milioi) kotizazioen bidez ordaindu zuen, eta gainontzeko 7.792 milioi euroak lortzeko jo zuen pentsioen itsulapikora eta arestian aipatutako mailegura.

2017ko azaroaren 1ean Gizarte Segurantzak emandako datuen arabera, 9.567.387 pentsio ematen ditu gaur egun Espainiako estatuak, eta horiek ordaintzeko 8.857.947 milioi euro behar ditu. Erretiroa hartzean jasotzen den pentsioaren batez bestekoa 1.069,78 eurotan dago. Honako hauek dira pentsio motak eta kopuruak: % 44,34 jubilatuena pentsioak, % 30,55 alargunen pentsioak, % 12,33 elbarritasunetik eratorritako erretiroei dagozkienak, eta % 12,78 beste era bateko prestazioenak.

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako datuetara joanda, 547.221 dira hiru herrialdeotan jasotzen diren pentsioak (azaroaren 1eko datuak); hain zuzen ere, 350.862 erretiroa hartu dutenena, 135.566 alargunena, 43.010 desgaitasun iraunkorra dutenena, 15.476 zuztasunei dagokiena eta 2.307 familiartekoen aldekoena. Batez



beste, jubilatuek 1.322,42 euro jasotzen dituzte, 1.200,59 desgaitasunen bat daukatenek eta 773,50 alargunek. Umezur-tzen eta familiartekoen aldeko pentsioa dutenek, hurrenez hurren, 452,23 euro eta 664,32 euro kobratzen dituzte Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan.

Espainiako estatuan, % 1,15eko hazkundea izan da urtebeteko epean pentsio kopuruari dagokionean, eta hazkunde hori handiagoa izan da Euskal Autonomia Erkidegoan: % 1,43. Baina hazkunde hori ez da oraingoa, behar egoeran daudenen kopuruak gora egin baitu azken urteetan. Gizartea zahartzen eta bizi itxaropena handitzen ari den heinean, geroz eta gehiago dira jubilatuek eta pentsiodunak, eta horregatik entzuten dugu sarri pentsio sistema publikoa kolokan dagoela. Hala ere badira kontrako baieztapena egiten dutenak ere; sistemak osasuntsu irauteko baldintzak izan badi-tuela diotenak, alegia.

¿Están en peligro las pensiones públicas? liburuan Vicenç Navarro, Juan Carlos Lopez eta Alberto Garzonek diotenez, «faltukerien, erdi-egien eta amarruen bidez», pentsio publikoak desagerrarazi behar direla edota irabaziak txikitu behar direla sinestarazi behar zaie herritarrei. «Konbentzitzeko, pentsioak ez direla bi-

deragarriak esaten zaie, edota ekonomiak hondoratuko dituzten kostu jasangaitzak ekarriko dituztela».

Aipatutako liburuaren egileen ustez, «mezu katastrofistak zabaltzen dira, eta, azkenean, herritarrek sinetsi egiten dute hainbeste aldiz entzun dutena». Navarro, Lopez eta Garzonen esanetan, helburu argia daukate diskurtso horiek: aurrezki kolektiboa banketxeek maneiatzeari, bostere publikoak maneiatu beharrean; eta aurrezki hori errentagarritasun pribatua emateko gobernatzea, eta albo batera uztea ekitate edo zuzentasuna edo belaunaldi batetik besterako elkartzuna. «Baliteke pentsio sistema publikoaren pribatizazioa kapital finantzarioaren neurririk onuragarriena izatea, baliabideen sekulako bolumena banku eta finantza-entitateen esku uzteko aukera emango bailuke».

Beste aldean daude pentsio plan pribatuak eskaintzen dituzten entitateak, sistema publikoaren ahultasuna agerikoa dela diotenak. EHUko Lan eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakaslearen arabera, «ontzi komunikatuak» dira pentsio sistema publikoa eta pribatua. Baieztapen hori eta askoz gehiago azaldu digu Elisabet Errandoneak.



ELISABET ERRANDONEA:

«Konfiantza izan behar dugu sistema publikoan»

teko ezinbestekoak direla argudiatuta. Zerbait lortu al da zentzu horretan? Zeintzuk izan dira erreforma horien ondorio nagusiak?

Azken urteetan egindako aldaketak ugariak izan dira, eta hainbat arautan izan dute eragina. Baina argi gera dadila aipatutako bideragarritasun hori lortzeko egindako aldaketak ez direla diru sarretan egin; alegia, ez direla diru sarrerak sendotzeko egin, baizik eta pentsioen zenbatekoak murrizteko. Eta bai, lortu da aurreztea, alegia, aurreko araudiarekin ordaintzen zena baino gutxiago ordaintzea. Ondorio nagusi moduan aipatuko nuke pentsio berrien zenbatekoei eustea lortu dela, hau da, aurreko araudiarekin edukiko zituzten baino kopuru txikiagoak edukitzea. Baita pentsioen birbalorazioaren gainean egindako aldaketa ere, orain ez baitu eros ahalmena mantentzea bermatzen. Eta, baita, bizi itxaropena kontuan hartuta oraindik indarrean sartzeko dagoen beste aldaketa bat ere, *jasangarritasun faktorea* esaten diotena.

Egungo pentsioen sistemak eutsiko al die dituen zailtasunei? Bideragarri izaten jarraitzen du? Hala izan ezean, zer egin beharko litzateke bideragarri izan dadin?

Gai honetan gauza bat eduki behar da garbi: Espainiako Konstituzioak esaten du botere publikoek gizarte segurantza sistema publiko bat izateko betebeharra dutela, eta horrek ematen dituen prestazioak nahikoak izan behar dutela. Hau da, botere publikoek bermatu egin behar dute sistema publiko hori finantzatzea eta prestazioak nahikoak izatea, finantzaketa era batekoa edo bestekoa izan-

da. Esan nahi da kotizazioetako dirua nahikoa ez balitz, diru hori beste nonbaitetik jarri beharko lukeela Estatuak. Lehenago esan dut azken urteetako aldaketek pentsioen kopuruak murriztea izan dutela helburu, baina ez diru sarrerak sendotzea, eta, beharbada, azken hori da egin beharko litzatekeena.

Erreserba funtsera jo dute azken urteetan pentsioak ordaintzeko. Zer aurreikuspen dago funts horri dagokionez? Zenbat urterako dago erreserba?

Erreserba fondoa gizarte segurantzan superabita egon zen urteetan sortu zen, espero baitzen etorkizunean egoera hura aldatzea. Orain arte diru hori uztaileko eta abenduko aparteko ordainketak egiteko erabili izan da, eta ez hilabete arruntetako pentsioak ordaintzeko, baina datuek diote funts hori denbora gutxirako dagoela.

Defizita egon badago, zein izan daiteke Espainiako gobernuaren hurrengo pausoa? Beste erreforma bat aurreikusten da?

Esan beharra dago egin diren aldaketa guztiak ez direla oraindik indarrean sartu, eta indarrean sartu diren horietako batzuen ondorio guztiak ez direla oraindik antzeman. Beraz, oraindik ez dago jakiterik beren benetako eragina norainokoa izan den; urte batzuk beharko dira horretarako. Baina, edozein kasutan, badaude oraindik egiteko dauden aldaketak. Aspaldiko kontua da alarguntasun pentsioa aldatu behar dela Espainian, eta azken aldirian proposatu izan dira haren finantzaketari buruzko aldaketak. Batzuek diotenez, laster izango dira aldaketa hauek; 2018an, beharbada.

Zeintzuk dira pentsio sistema publikoaren abantailak eta desabantailak?

Elkartasun elementuak onak dira, zailtzarik gabe. Adibidez, pentsioen gutxiengo kopuruak oso garrantzitsuak dira pentsiodunei gutxiengo diru sarre-
ra bat bermatzeko. Hau da, kontribuzio-mailako pentsioa jasotzeko baldintza guztiak bete arren, gerta daiteke pentsio hori oso-oso txikia izatea. Halakoetan, osagarri batzuen bidez, pentsioak diru kopuru batera iristea bermatzen da. Hau maiz gertatzen da alarguntasun pentsioekin, eta onuradunak emakumeak izaten dira gehienetan. Desabantailei dagokionez, esango nuke, oro har, pentsioen zenbatekoa txikia dela: kotizazio gabeko pentsioak oso txikiak dira eta gutxiengo kopuruak ere bai. Batez besteko pentsioen zenbatekoa ere txikia da, batez ere, emakumeen kasuan.

Pentsioen sisteman erreformak egin dituzte azken urteetan, bideragarri egi-

Pentsioak inflazioaren arabera ez eguneratzeak zer nolako eragina dauka?

Pentsiodunen eros ahalmena murriztu daiteke era horretan, eta hauxe da azken urteetan gertatu dena. Arau hau aldatu aurretik Espainiako Gobernuak bi aldiz utzi zuen bertan behera pentsioen eguneratzearen araudia, eta horrekin pentsiodun gehienek galdu zuten eros ahalmena. Aldaketa egin ondoren, urte batzuetan ez da hori gertatu, inflazioa negatiboa izan baita, baina berriz ere pentsioak eros ahalmena galtzen ari dira, eta galera hori pilatzen ari da urte batetik bestera.

Garai batean baino urte gehiago kotizatu behar al da gaur egun?

Azken urteetako aldaketek gehienbat erretiro pentsioarengan izan dute eragina, eta erretiro baldintzak gogortzen dituzten hainbat gauza aldatu dira. Honek esan nahi du pentsiodun gehienek aurreko arauak mantendu izan balira baino pentsio txikiagoak izango dituztela. Beraz, kasu batzuetan urte gehiago kotizatu beharko da garai batean lortzen ziren pentsioak lortzeko.

Gaur egun gazteak duela zenbait urte baino beranduago hasten dira lanean. Zer nolako eragina izango du horrek etorkizunean jasoko dituzten pentsioetan?

Oraindik urte asko falta da egungo gazteek erretiroa hartzeko, eta, seguruenik, ordurako arauak ez dira gaur egungoak izango. Hala ere, gazteak beranduago hasten dira lanean, bai, baina era berean, erretiro adina atzeratzen ari da. Gauzak asko alda daitezke, baina, gaur egungo joerak ikusita, printzipio orokor gisa har daiteke bizitzan zehar kotizazio urteak gutxiago badira pentsioa txikiagoa izango dela.

Eta emakumeen kasuan, nola dago egoera? Pentsioak txikiagoak al dira?

Dauden datuek ez dute inongo zalantzarik uzten: emakumeen pentsioak nabarmen txikiagoak dira gizonenak baino. Faktore asko dira hori eragiten dutenak. Emakumeen soldatak txikiagoak dira, eta hori faktore desberdinengatik gertatzen da; tartean, dagoen diskriminazioarengatik. Horrez gain, gizarte segurantzaren sistema gizonenak pentsatuta sortu zen, haiek joaten baitziren etxetik kanpoko lanera eta emakumeek etxea eta etxeak zaintzen zituzten. Gero, emakumeak etxetik kanpo lanean hasi ziren, baina oraindik ere gizonenak dira kasu gehienetan etxeari eusten diotenak. Gaur egun ere, nagusiki andreak hartzen dituzte adinekoak zein adingabeak zaintzeko lanaldi murrizketak, baimenak, eszedentziak, denbora partzialeko kontratuak eta abar, eta horrek eragin kaltegarria dauka haien pentsioetan. Beraz, asko dira pentsioen desberdintasun hori sortzen duten faktoreak.

Zer egin dezakete langileek etorkizunean diru sarrerak bermatuta izan dituzaten? Nola aurrez dezakete? Pentsio plan pribatuak kontratatzea da irtenbide bakarra? Zeintzuk dira balizko aukerak?

Hauxe bai galdera zaila. Printzipio orokor gisa, esango nuke sistema publiko-arengan konfiantza izan behar dugula. Alarma sortzen duten informazioek sistema publikoa ahuldu egiten dute, eta, horren ondorioz, sistema pribatuek irabazten dute. Gomendio orokor gisa, ahal den neurrian, ahalik eta urte gehien kotizatzea da aukerarik onena. Eta bestelako erabakiak hartu aurretik ondo informatzea; alegia, murrizketa edo eszedentziaren bat hartu aurretik informazio egokia jasotzea erabaki horrek etorkizuneko pentsioetan izango duen eragina kontuan izateko.

Pentsio plan pribatuak aurrezteko modu bat dira, baina ez bakarria, badira-eta beste batzuk ere. Pentsio plan pribatuak

egitea desgrabazioekin sustatzen da, baina onuradunek ba al dakite zein baldintzatan aterako duten diru hori? Gainera, jakina da batez beste oso errentagarritasun txikia ematen dutela, beste finantza produktu batzuek baino txikiagoa, eta oso komisio handiak kentzen dituztela. Beraz, adi ibili behar dugu kontu horietan, askotan alde ona besterik ez baitigute esaten.


Pentsio sistema publikoak eta pribatuak «ontzi komunikatuak» bezalakoak direla diozu. Zer dela eta?

Horrekin esan nahi dut pentsio sistema publikoa sendoa denean, pentsio nahikoak ematen dituztenean eta konfiantza sortzen duenean, pertsonak ez dutela pentsio pribatuen beharrik sentitzen, eta ez dituztela egiten. Hori frogatuta dago. Baina pertsonak sistema publikoan konfiantzarik ez dutenean eta ematen dituen pentsioak nahikoak ez direnean, orduan sentitzen dute pentsio pribatuen beharra. Horregatik esaten dut kontuz ibili behar dela alarma sortzen duten mezuekin, gai honetan interes handiak daudelako. Sistema publikoan konfiantza galtzen bada, ahuldu egingo da, eta plan pribatuak indartu egingo dira.


Pentsio sistema propio baten aldeko jarrera agertu dute Euskal Herriko zenbait alderdik, gaia mahai gainean jarrita. Euskal ekonomista ugariak ere bideragarritzat jo dute pentsio sistema propioa. Zer deritzozu horri?

Ez da erraza gai horretaz hitz egitea. Euskal Autonomia Erkidegoak ez dauka horretan eskuduntzarik, eta egunen batean Gizarte Segurantzaren kudeaketa egiten bada ez dakigu zein baldintzatan egingo den. Baina, hala balitz, eta Euskal Herriak pentsio sistema propio bat izatea lortuko balu, ez dut zalantzan jartzen ekonomista horiek esaten dutena. ■

Hitz gezidunak

	Albiste emaleak	▼	Galdutakoa	▼	Filosofiaren adarra	▼	Arnas	▼	Ergela
	Dudamudak		Lemazaina		Sodioa		Zian		
	▶		▼		▼		▼		▼
	* DEITURA		▶						
	Lokarri sendoa								
2. piezako bainujantzia	▼	Gurasoekiko ar	▼		Iparaldean lehengusu	▶			
Pilota jokalariek		Emakume izena			Ikas eta Ari				
▶		▼			▼			Potasioa	▶
								53	
Katilu txikiak	▶						Sexu eme	▶	▼
Gidatzen du							Ez zakar		
▶					Atsegina	▶	▼		
					Galdetzaila				
Naizen hau	▶		Joan den urtean	▶	▼	Meniaren erdian	▶		
Arabako udalerrria			Hizki grekoa			501			Kanpo, landa
▶		▼			* IZENA	▶	▼	Kasik	▶
					Bokala			Bokala	
Bokala	▶	Musika tresna	▶		▼				Kontsonantea
							▼		▶

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da.

1. Makila.
2. Ezkertiarren gustoko kolorea.
3. Hostoa.
4. Ibar, haran.
5. Garai, aldi.
6. Gipuzkoako ibaia.
7. Patua, zortea.
8. Buruan ile artean hazten den bizkarroia.
9. Izorra hadi.

SOLUZIOAK


	H	K	A	I	K	U	A	T
E	Z	T	A	S	L	I	I	A
G	N	E	I	K	A	L	E	N
L	A	L	A	I	K	A	Z	E
K	Z	E	M	A	R	I	A	E
	Z	S	O	K	A	R	A	O
		B	L	I	D	N	I	A
		P	K	G	I	A	A	A

Goitik behera

1. Zigorra
2. Gorria
3. Orria
4. Arro
5. Aro
6. Oria
7. Zoria
8. Zorria
9. Izorrai

Hitz gezidunak

IVAPen aldizkariak



IVAP
 HERRI ARDURALARITZAREN
 EUSKAL ERAKUNDEA



Administrazio-hizkera argia

IVAPen bloga

Zer da IVAP? Enplegu publikoa Prestakuntza Euskara Liburutegia eta argitalpenak

IZO Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

Administrazio hizkera argia blogak urtebete

Argia: Administrazio Hizkera Argia, Astea 01, 2017

Duela urtebete, 2016ko urrian, IVAPeko Administrazio Hizkera Atalean sortu genuen Administrazio hizkera argia bloga. Orduetik, atalaren helburu nagusiari erantzuten saiatu gara astero-astero, alegia, administrazioiko komunikazioaren esparruan hizkera argia bultzatzea.

Blogak bazituen bestelako helburuak ere, eta horiek gidatu gaituzte orain arteko ibilbidean. Batzuk aipatzearen: atalean egiten dugun lanari ikusgarritasuna ematea eta herritarrengana heltzen laguntzea; administrazio hizkeraren esparru zabala zedarriz joan eta gai zehatzetan zentratzea, edota gaietan sakontzeko dinamika sortzaileagoa bultzatzea gure taldean.

Urteurrena den honetan, lehenengo balantzea egiteko unea dela iruditzen zaigu. Horretarako, datu eta gogoeta batzuk bildu ditugu zuekin partekatzeko.

BLOGAK URTEBETE

<http://www.ivap.euskadi.eus/administrazio-hizkera-argia/>

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

zure etxean doan jaso nahi baduzu,
idatzi helbide honetara:

IVAP

Donostia-San Sebastián 1
01010 Vitoria-Gasteiz
administrazioeuskaraz@ivap.eus

Abizenak

Izena

NAN/IFZ/ENA

Helbidea

Posta-kodea

Herria

Probintzia

Mugikorra

e-posta